

Herririk Herri |4|

Zelaietako auto-ilarak arindu guran, neurriak hartuko dituela dino Udalak



Berbaz |9|

O. Zarrabeitia: "Babeseko etxebizitzak eraikitzea lehentasun bat da Izurtzan"

Erreportajea |16-17|

Merkealdiekin krisi egoerari aurre egin gura deutsie dendariak

D3M plataformaren aldeko sinadurak biltzeko deialdia

Durangaldea • Demokrazia 3.000.000 herri plataformaren aldeko sinadurak biltzeko deia egin dau Durangaldeko ezker abertzaleko hainbat kidek. "Abertzale eta ezker-tiarrek hauteskundeetan ahotsa izan daien" sinatzera deitu ditue eskualdeko herritarrek.

2

Estatu Fondoekin finantzatu leiteken hamabost inbertsino

Durango • Udalak hamabost proiektu onartu ditu Espainiako Gobernuaren tokiko inbertsinoetarako. Durangori jagokozen 4,86 milioi euroen barruan, bidegorriaren hiru-garren fasea egitea eta merkatu plaza zaharbarritzea aurreikusitakoak dira, besteak beste.

7

Nederlanderaz idatzi eta argitaratzen

KULTURA • Amsterdamen bizi den, eta nederlanderaz idatzi eta argitaratzen dauen Kristina Goikoetxea Langarika itzultzaile durangarra gaz bere lanari eta afizinoari buruzko berbaldia izan dogu.

13

Ariane Isasi: "Beti gustatu izan jat zaldien mundua"

KIROLAK • Iurretar gazteak Orioko zaldi lasterketa irabazi dau Asabairen gainean. Behorragaz sortzen dabilen erlazinoa berezia dela dino: "Doma naturaletik gertu nagoela somatzen dot". Hurrengo lasterketa etzi dauka Getarian.

25

•Elorrio

Hiri Debekatuaren Mapa egiteko tailerrari gaur ekingo deutsie

8

•Berriz

Miguel Angel Alberdi omenduko dabe Iremiñeko landetan

4

•Garai

Erremata eguna

2

Atxondon be geldituko da Bilbora doan autobusa

Elorriotik Bilbora doan autobusak Atxondon eraikiko dabena geltokian geldialdia egingo dau.

Geltoki barri biak eraikitzen ditueenean, autobusak ez dau herrian sartzeko maniobrarik egin beharko.

Datorren astean hasiko dira Bilborako noranzkoan geltokia eraikitzen. Aste Santurako gertu gura dabe.

3



Bilbotik Elorriora doan autobusa Atxondon gelditu leiteke, baina kontrako noranzkoan ez dago geltokirik. Judit Fernandez

arteka
liburu-denda
artekale, 20
944 657 292
Durango

haur literatura
artea musika
arkitektura
opari bereziak...
erakusketak

ezagutu durangoko liburu-denda berria!

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Demokrazia 3.000.000 herritarren plataformaren alde sinatzeko deia

Martxoaren 1eko EAEko hauteskundeetan egotea eta ezker abertzalearen ahotsa izatea gura dabe



Abadiñoko Errota kultur etxean egin dabe Demokrazia 3 milioi herri plataformaren alde sinatzeko deialdia. Iban Gorriti

Martxoaren lean egingo diren Eusko Legebiltzar-erako hauteskundeetan “abertzale eta ezkertiarrek ahotsa izan daigun” udaletxe eta notari-zetan sinatzera deitu ditue herritarrek Durangaldeko hainbat herritako ezker abertzaleko ordezkariak.

Abadiñoko Errota kultur etxean bildu dira Demokrazia 3.000.000 herri plataforma sostengatuko daberen sinadurak eskatzera Otxandio, Durango, Zaldibar, Berriz, Izurtza, Atxondo, Elorrio,

Mallabia eta Iurretako ordezkariak.

Ezker abertzaleak hauteskundeetan egoteko eskubidea daukela nabarmendu dabe, eta martxo-ko hauteskundeetara begira sortutako Demokrazia 3.000.000 plataformari bultzada emotera deitu ditue herritarrek, Oleagaren berbetan, “zero demokratizatik, demokrazia hiru milioira” ailegatzeko. Urtarrilaren 24rako, EAEn jasotako 18.000 sinadura aurkeztu beharko ditue, gitxienez, hauteskundeetan zerrenda izateko.

Bizi dogun gatazka “luzatu” beharrean konponbidea bilatzeko zein aukera politikoen kriminalizazioa eta errepresioa gertatzeko, ezinbesteko ikusten dabe ezker abertzaleko ordezkariak aldaketa, eta herritarren sinadura eskatu dabe horretarako.

Eusko Legebiltzarerako martxo-ko hauteskundeetan, “aukera politiko guztiek aukera bardinak izan dagiezen”, udaletxe eta notari-zetan sinatzera deitu ditue Durangaldeko herritarrek. ■ I.E.

OTXANDIO

Kultur azpiegitura barria sortzeko alternatiba bila

Zine zaharra txiki geratu leitekela ikusi dabe

Kultur azpiegitura barria eraikitzeke egon leitekezen alternatiba barriak aztertu gura ditu Udalak, zine zaharrak eskaintzen dituen aukerak nahikoa izan ez leitekenezelakoan. Kultur etxea egokitze-ko egitasmoa lantzeko 85.000 euro zeukiezen gordeta; beste premia batzuetara bideratuko ditue. Herriko elkarteekin hainbat batzar

Instituzinoetatik aurreikusi baino diru-laguntza handiagoa jaso dau Otxandio-ko Udalak; 1,1 milioi eurotik gora

egin ditue, euren preminak aztertu eta gero egitasmoan jasotzeko. “Antolaketa posiblea batzen eban zirriborroa eskuetan izanda ikusi dogu zine zaharra txiki geratuko litzakela”, azaldu dau Aritz Otxandiano alkateak. Beraz, “ate guztiak” zabalduko ditue berriro. Izan leitekizen “alternatibak” aztertu eta garatu gura ditue, gero berriro elkartei aurkezteko.

Instituzinoetatik aurreikusi baino diru-laguntza handiagoa jaso dabela ikusita —1,1 milioi eurotik gora—, atalak berregokitu ditue udal arduradunek, aurreiriten leiken edo denpora behar-

Abertzale eta ezkertiarrek hauteskundeetan ahotsa izan dairen sinatzera deitu ditue Durangaldeko herritarrek

Benetako aldaketarako eta konponbiderako unea dela nabarmendu dabe ezker abertzaleko ordezkariak

ko dauen egitasmoa aztertuta. Holan, azaroan hasitako hezkuntza zentroa handitzeko —495.000 euroko laguntza izan dau— atala 1,1 milioira handitu da, eta Pasealekuaren teilaturakoa 425.000 eurora. Pasealekuaren teilatua eta Bolatokia —270.000 euro jaso ditue— ez eze, Enparantza Nagusia be barriztu egin gura dabe.

Ospital kaleko eta Alde Zaharreko mutur bietako erremate zein ur hornikuntza eta saneamendu lanekin lotuta 240.000 euro jaso ditue —Alde Zaharreko muturren errematerako, beste 66.000—; Gaztetxe-ko lanetarako 75.000 euro. ■ A.B.

ZALDIBAR

Euskararen egoeraren diagnostikoa

Udalerriko euskararen egoeraren inguruko azterketaren ondorioak jasotzen dituen abendu-ko data daroan txostena helarazoz barri dau Udalak. Herrian euskararen egungo egoera zein den jasotzen dau aipatu dogun txosten horrek, eta, berorren bultzatzaileek azaltzen dabenez, etorkizunean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia —plan estrategikoa— aurrera eramateko baligarria izango da.

Euskararen normalizazioan hurrengo pausuak emoteko, funtsezko izango da eragile talde dinamikoa osatzea

Horretarako, 2001 ean batu-tako datu soziolinguistikoak —herriaren garapen industrialari lotutako azterketa, esaterako—, euskararen kaleko eta Udaleko erabilera datuak (kaleko erabilera %19koa zen 2006an) eta 13 zaldibartar “esanguratsugaz” izandako elkarrizketak batu ditue diagnosian. Hurrengo plan estrategikoa garatzeko, euskararen normalizazioaren alde lan egiteko prest dagozen eragile eta herritarren taldea eratzea dalehenengo pausua. ■ I.E.

GARAI

Errematarako hitzordua San Anton egunez

Urteroko hitzorduari eutsiz, erremata izango dabe aurten be Garain San Anton egunez. San Joan Ebanjelariaren elizpean elkartuko dira, eta herritarrek eurek eroandako baserriko produktuak enkantean hartzeko errematari ekingo deusie meza nagusia amaituta. Hasi aurretik, baina, inguruko zelai eta lurrik bedeinkatuko ditu abadeak. Zapatuan, 12:00etan, izango da meza nagusia.

Makina bat garaitar batu ohi ditu San Anton eguneko errematak, aste barruan izan da be. Pentsatzekoa da oraingoan, asteburua jausita, bertaratzera gehiago lagunduko dauela horrek. Ondoren, bazkaria be egingo dabe Herriko Tabernan; otordurako 14:00etan elkartuko dira. ■ A.B.

San Joan Ebanjelariaren elizpean elkartuko dira, enkantea egiteko



ATXONDO

Gaztetxe- lanak datorren astean esleituko ditu Udalak

Lanak ekainerako amaituta izatea itxaroten dabe eta Gaztetxea herriko jaietan zabaltea

Asteon izan dabe Gaztetxe-ko lanen ardura euren gain hartzeko aurkeztutako enpresek proposamen ekonomikoak bidaltzeko azkenengo eguna. Datorren astean esleituko ditue tren geltoki izandakoa atontzeko lanak.

Lanak ekainerako bukatzea aurreikusita dabe, jaietarako prest gura dabe-eta Gaztetxe barriztua. Ekaineko San Pedro jaietan gura dabe Gaztetxe barriztuaren inaugurazioa egin. Orain hilabete batzuk egin zituen teilatua konpontzeko lanak, eta horreek amaituta, barrukaldean egingo ditue lanak orain.

Cobos alkateak nabarmendu dauenez, ezker abertzalea gobernura ailegatu zenean topatu ebenak bertan behera itzita-ko etxe bat emoten ei eban. Hainbat lan direla egin beharrekoak azaldu dau: igogailua ipiniko dabe, komunak konponduko ditue, leihoak zabalduko ditue eta barra tokiz aldatuko dabe.

Horrela, espazio publiko batek bete beharreko segurtasun eta irisgarritasun baldintza minimoak betetzen ez zituen espazioa "baldintza duinetan" ipini gura dabela arrazoitu dau Dabid Cobos alkateak. Guztira, 100.500 euroko aurrekontua daukie lanek, eta hil honen amaieran ekingo deutsee.

Guztira 100.500 euroko aurrekontua daukien barrikuntzak egingo ditue tren geltoki izandakoa

Hileroko asanbladetan 15-20 bat lagun batzen dira Gaztetxean, eta eraikina zaharkitua zegoela eta barriztea beharrezko zela uste daben arren, larregizko be iruditzen jakez lanak; gitxiagogaz konforme eilegokez gazteak. Ulertzen dabela dinoe, halan be, halako obretan segurtasun eta irisgarritasun arauak betetzea ezinbestekoa izatea gaur egun.



Hil honetan bertan ekingo deutsee Gaztetxea atontzeko lanei. J.Fernandez

Gaztetxe-ko lanek irauten daben bitartean, euren batzarrak eta hileotarako aurreikusita ditueen ekintzak aurrera eroan ahal izateko, beste lokal alternatibo baten bila dabilzela Udalgaz azaldu deuskue. Hurrengo hitzori-

Lau-bost hilabetean itxita egongo da Gaztetxea, eta beste lokal batean egingo ditue gazteek asanbladak

duak antzerki emonaldi bat eta Abadiñoko Gaztetxeagaz batera antolatutako eskiatzera joateko irteera ditue. Hil honetan ekingo deutse, beraz, Gaztetxea barrizteko lanei, arduradun izendatzen daben enpresak. ■ I.E.

Bilborako autobusarendako geltokiak atonduko ditue

Bilborainoko autobus zerbitzua hobetzeko, geltoki bi eraikiko ditue herriko sarreran

Hiriburuan lan egin edo ikasten daben herritarrek hainbat urtean izan daben garraio arazoari konponbidea emoteko bidea ipiniko deusie autobusarendako geltokia atonduz. Gaur egun Bilborainoko bidaia garraio publikoan egin gura daben atxondarrek ez dabe lotura hori zuzenean egiteko modurik, eta Abadiño edo Durangoraino joanda hartu behar izan dabe hiribururainoko autobusa. Alkateak jakitera emon dauenez, astebetean ekingo deutsee auto-

bus geltokia atontzeko beharrei, eta Aste Santu ingururako erabilgarri gura dabe. Gaur egun, zerbitzu oso murrizta izateaz gainera, herrian sartzeko autobusak egin behar izaten dituen maniobrak ekiditeko funtzioa izango dabe Elorrio nahiz Abadiñoko norabideetan eraikiko ditueen geltokiek.

Herrirako sarbidea ordentzeko eraikitzen hasiak diren biritzuneak ahalbidetuko dabe etorkizunean, Cobos alkateak dinenez, herritik igarotzen diren autobusek herrigunean sartu beharrik barik, Atxondon geldialdia egin eta bidaiariak hartu eta izteko espazio aproposagoa izatea. Atxondoko herritarren eta Udalaren urteetako eskaria aintzat hartua izanda, beraz, horrenbestez. ■ I.E.

Geltokietako bat datorren astean atontzen hasiko direla aurreratu dau Dabid Cobos Atxondoko alkateak

Gaur egun, Atxondotik Bilborako bidaia egiteko ez dago zuzeneko garririk

IZURTZA

Frontoian barrikuntzak egiteko proiektua

Pala frontoiaren egitura saneatu gura dabe

Espainiako Gobernuak azaro amaieran kaleratutako Tokiko Inbertsinoen Estatu Fondotik 43.000 euro pasatxoko dirulaguntza jaso ahal izateko, frontoian hainbat barrikuntza lan egiteko proiektua proposatu dabe Udaleko ordezkariak.

Handia eta zaharra izateagaitik berezia den frontoia, Euskal Herrian halako ezaugarriak daukazen gitxi dagoela kontuan izanda (palaz jokatzeko eraikitakoa da), ondo mantentzea garrantzitsua delakoan dagoz Udalean. Aukera aproposa ikusi dabe Gobernu Taldeak eta oposizioak, Espainiako gobernua-

udalerrietako inbertsinoetara bideratzeko emongo dituen dirulaguntzetara aurkezteko. Frontoian egituraren saneamendua egitea (hormak eta kristalak alda-

Espainiako Gobernuak azaro amaieran kaleratutako Tokiko Inbertsinoen Fondotik 43.000 euro jasotzea itxaroten dabe

tzea) jasotzen dau, besteak beste, proiektuak. Datorren astean amaitzen da egitasmoak aurkezteko epea, eta astean udalbatzarrera ekarri dabe. ■ I.E.

ALBORDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

Aurretiaz prestatutako janariak
Deneriko CATERING zerbitzuak

Arriandi industrialdea
Tf: 94 681 44 00
48215 IURRETA/ Bizkaia

ALBORDI
prekozinak

BERRIZ

Gabiola kaleko espaloiak irisgarriago egingo ditue



Gabiola kaletik Osasun Zentrora doan espaloi sarea birmoldatuko dabe.

Tokiko Inbertsioen Estatu Fondoak rokodromoa eta skate pista egiteko be baliatuko ditue

Tokiko Inbertsioen Estatu Fondotik herri bakotxari egokitzen jakon laguntzagaz zer proiektu gauzatuko diren jakinarazteko epea urtarrilaren 24an amaituko da. Berrizko Udalak eguazteneko udalbatzarrean aho batez onartu eban diru horregaz (800.000 euro) gauzatu asmo dauen proiektu sorta.

Besteak beste, farmaziatik Osasun Zentrora doan Gabiola kaleko espaloi sarearen irisgarritasuna hobetzeko lanen lehenengo faserako balioko dau. Irisgarritasuna hobetzeaz gainera, espaloiak birmoldatuko dabe. Proiektu beraren barruan, Iturriza kaleko 42, 44 eta 46 zenbakien artean dagoen terraza edo parketxea egokitzeko lanak be aurreikusi ditue.

Beste hiru proiektu be aurreikusi ditue, eta guztiak antzeko inbertsinoa daukie. Bigarren diruatal bat Urzabal kalean -Gaztetxearen behealdean- rokodromoa eta skate pista egiteko obra zibilerako erabiliko dabe. Behin azpiegiturak eginda, egitura biak janzteaz Udala arduratuko da.

Saneamendu lanak
Hirugarren proiektu batean Matza auzoko ur-deposituko saneamendu lanak aurreikusi ditue. Egitura

Proiektuak apirilaren 7a baino lehenago hasi eta 2010eko lehenengo hiruhilekoaren barruan amaitu behar dira

egoera txarrean dago, eta tratamendua behar dau. Azkenik, Eitua industriagunean ur hornidura sarea be osatu gura dabe. Ur hornidura iraunkorra bermatzea da asmoa; esaterako, ur mozketek ez leukie hainbeste eragingo.

Obra guztiak apirilaren 7a baino lehenago hasi eta 2010eko lehen hiruhilekoa amaitu aurretik amaitu behar dira. ■ J.D.

PROIEKTUAK

Iturriza-Gabiola
kaleko urbanizazioa
200.000 euro

Matzako ur deposituan
saneamendua
205.000 euro

Eitua industriagunean
ur hornidurarako sarea
205.000 euro

Rokodromo eta skate
pistako obra zibila
143.000 euro

Gazako egoera salatzen mozinoa onartu dabe

Zinegotzi guztiak mozinoaren alde agertu ziren

Karmen Amezua, Gorka Kamarra eta Aitor Zumelaga zinegotziek Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra salatzen dauen eta Palestinari elkartasuna erakusten deusmozinoa aurkeztu eben Udalean. Udalbatzarra osatzen daben alderdi eta zinegotzi guztiak alde bozkatu eben.

Mozinoagaz Gazan gauzaten dabilen ekintza militarra eteteko eta NBEk gatazkaren aurrean hartutako erabakiak betetzeko eskatu jako Israeli.

Gatazka horri irtenbidea emateko "tresna eraginkor bakaarak elkarriketa eta negoziazi-

noa" direla be jasotzen dau, eta herritarrei dei egiten deutse Palestinako herriari elkartasuna erakusteko mobilizazioetan parte hartzeko.

Azkenik, hartutako erabakiaren barri Israelgo eta Palestinako Gobernuai eta Nazio Batuen Erakundeari, besteak beste, jakinarazteko konpromisoa hartu eben.

Dirua bueltan Aldundiari

Berrizko Udalak hiru milioi euro pasatxo jaso zituen igaz Udalkutxatik. Banaketa proportzionala eta arrisku konpartitua lako jarraibideengaitik, Berrizi 141.000 euro bueltatzea jagoko. Ezker abertzaleak finantziario sistema desegokia dela salatzen dauen mozinoa aurkeztu eban. Mozinoa ez zen onartu.

Jabier Azpitartek esan eban finantziarioarako ildoekin ados dagoela, eta urte batzuetan hartzea be egokitu jakela. Ezker abertzaleak aitatu eban ez dela logikoa dirua emon, ha kon-tuan hartuta inbertsioen zerrenda egin, eta gero dirua bueltatzeko eskatzea. ■ J.D.

Israeli ekintza militarra geratzeko eta NBEren erabakiak errespetatzeko eskatu deus mozinoagaz

Udalkutxara itzuli beharreko diruari buruzko mozinoa, barriz, ez eben onartu

Miguel Angel Alberdiri agurra eta omena, etzi

Iremiñe dantza taldeko sortzaileetako izan zen

Miguel Angel Alberdi Barinagarrementeria izan zenaren hautsak zabalduko ditue domekan Iremiñeko landetan. Zelai horreek Berrizko futbol-zelaia dagoen inguruan dagoz. Alberdi Iremiñe dantza taldeko sortzaileetako izan zen orain 40 bat urte, Roberto Maiztegi eta Luzar anaiekin batera, eta lan asko egin eban bere alde luzaroan.

Omenaldia 12:30ean hasikoda. Lehenengo bere lau seme-alabek dantzak eskainiko deusiez. Ondoren, Xabier Amurizak bertso batzuk abestuko ditu eta, jarraian, Maite Arrizabala-

gak poema bat irakurriko dau. Azkenik, omenaldiagaz amaitzeko, haritz bat landatuko dabe eta bertan itziko ditue Alberdi zenaren errautsak. Txalaparta doinurik be ez da faltako. Dantza taldeko kide izateaz gainera, herriko beste hainbat saltsatan be bazebilen. Zura lantzea gustatzen jakon eta erakusketaren bat be antolatu eban. ■ J.D.

Haritz bat landatu eta haren sustraietan zabalduko ditue Alberdiren errautsak

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

EXCAVACIONES JON

MOTAGUZTITARTAGINTZAK HONDARINDEGIA

Jon Guritagañin Gallastegui

PREZIOAK: 400 + ORENA - 4000 MALLARIA
TEL: 943 17 21 54 FAX: 943 17 21 55

BEHERAPENAK

MERKATARITZA SARI NAZIONALA 2008

DESKONTU BEREZIAK
SAIL GUZTIETAN
DOAKO FINANTZIAZIOA

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO
www.bautistamuebles.com



599,00 €



569,00 €
tik aurrera

SOMIER ELEKTRIKOA ETA LATEXEZKO KOLTZOIA (90x190)



1.190,00 €



950,00 €



BIOFORMA KOLTZOIA

330,65 €
tik aurrera



599,00 €



KOLTZOI
BISKOELASTIKOA

250,75 €
tik aurrera



899,00 €



OPARIA: BURUKO BISKOELASTIKOA



570,00 € 295,00 €

Liquidazioa
erakusketako artikuluetan

BEHERAPENAK: URTARRILAREN 12tik MARTXOAREN 11 ARTE

Urbite poligonoa, 4.eraikina, pab.2 ABADIÑO 94 681 35 19

DIURRETA

Nitxoak bete egin direla-eta, hilerria barriz handituko dabe

Hilerria bigarrenez handituko dabe udal arduradunek, udalerrian dagoen nitxoak bete egin direla ikusita. Lehenengo handitzearen eta Zaldabi bidearen artean dagoen 2.577 metro koadroko lursaila egokitu gura dau Udalak epe labur-ertain batean, eta bertan 200 inguru nitxo barri erai-ki; "etorkizunera begira izan leitezkeen eskariei aurre egin ahal izateko". Halan jakin eragin gura izan dabe udal arduradunek.

Hilerria bigarrenez handituko dabe udal arduradunek, udalerrian dagoen nitxoak bete egin direla ikusita. Lehenengo handitzearen eta Zaldabi bidearen artean dagoen 2.577 metro koadroko lursaila egokitu gura dau Udalak epe labur-ertain batean, eta bertan 200 inguru nitxo barri erai-ki; "etorkizunera begira izan leitezkeen eskariei aurre egin ahal izateko". Halan jakin eragin gura izan dabe udal arduradunek.

Mailakatuta, lursailen hondoratutako zabalgunen lez ulertu leiteke hilerriaren bigarren handitze egitasmoa, emondako azalpenen arabera: "Jatorrizko zabalgunea ez da ia aldatuko, eta begi-inpaktua be ez da ia nabaritu". Gaineratu dabenez, lursailera egokitutakoa da Angel Basabe arkitektoaren egitasmoa, "begi eta paisaia inpaktua txikituz". Egitasmo "ausarta eta ingurumenagazko adeitsua" ei da landu barri daben proiektua.

660.000 euro inguru

Etorkizuneko handitze bati begira, erdiko pasealekua neurri txiki-kolunbarioz estaliko dabe, argitu dabenez, eta "lehenengo han-

ditzeko parterre laukietan eraberritze zehatzak" egingo ditue, nitxoaklerokatuta geratuko direla. Denera, 661.454 euroko aurrekontua eskatuko dauen egitasmoa da, eta Herri Administrazioetako Ministerioaren Toki Inbertsionen Estatuko Fondoaren dirulaguntzak jasotzea da Iurretako Udalaren asmoa. Horretarako beharrezko den dokumentazioa igorri dabe dagoeneko. ■ A.B.

Lehenengo handitzearen eta Zaldabi bidearen artean dagoen lursaila egokitu gura dau Iurretako Udalak

DIABADIÑO

Zelaietan sortzen diren auto ilarak ekiditeko egitasmoak

Trafikoa arintzeko neurriak adostu ditue Bizkaiko Aldundiak eta Udalak

Elorrio eta Durango artean, Abadiño Muntzaratz eta Zelaieta arteko errepidean hain ohikoak doguzen auto-ilararen arazoa behin betiko konponbidea Bizkaia eta Gipuzkoako barnekaldea lotuko dituen Lebario-Beasain errepidea izango dela onartzen dau Jose Luis Navarro alkateak.

Zelaietatik igarotzen den gehiegizko trafikoa murrizteko gakoa Lebario-Beasain errepidea dela dino alkateak

Baina, "abadiñarrek bizi kalitatean kaltea eragiten dauen gehiegizko trafikoren arazoari" behin behineko irtenbidea emoteko, Bizkaiko Aldundiagaz hainbat neurri hartuko ditueela azaldu dau Talde Independienteko alkateak: batetik, Elorriotik datozen ibilgailuei San Vicente fundizina sartzeko ezkerretara jiratzea debekatuko deutsee -maniobra hori egiten daben autoek geldotzen dabelako hein batean trafikoa-, eta kontrako norabidea hartzeko autoak Txanporta biribilgunera eta kamioiak Roterbergeko biribilgunera bideratuko ditue; bestetik, Navarrok azpimarratu dauenez, Muntzaratz eta Zelaieta arteko BI-

632 errepide tartean dagoen semaforoen iraupena luzatu egingo dabe; denpora gitxiagoan egon deitezen gorri, eta autoak geldirik hainbeste denpora egon ez daite-

zen. Neurriok abadiñarrei zer onura ekarriko deutsezen ikusita, bestelako neurri gehigarriak hartu beharrik ete dagoen aztertuko ei dabe. ■ I.E.



Egunero egiten dira auto-ilarak errepide zati horretan. I.E.

Jai giroak bustiko dau egunotan Bakixa auzoa

Sebastian Deunaren jaiak gaur hasiko ditue

Sebastian Deunaren jaiak gaur hasiko ditue. Donien-atxa jasotzeko hitzordua jarri dabe 21:00etan, eta, ondoren, txokolate beroa dastatzeko aukera be izango dabe bertaratuko direnek. Martitzena, urtarrilaren 20a, izango dabe egun handia Bakixan. Trikiti doinuek girotuta Sebastian Deunaren eguna ospatuko dabe, eta, meza nagusia ez eze kofradi bazkaria eta igel txapelketa izango ditue.

Halan be, asteburuak be ekarriko dau jai giroa. Tiro txapelketa 11:30ean hasiko da zapatuan, eta, 21:00etan, bakailao txapelketa. Domekan, bes-

talde, kalejirak abiatuko dau eguna, eta, 17:00etan, briska txapelketari ekingo deutse. Maiztegi herri eskolako dantza taldearen saioa hasiko da 17:30ean, eta, hori amaituta umeendako jolasak eta txokolatea izango dira.

Umeendako jolasak, dantza saioa, kofradi bazkaria eta bakailao txapelketa izango dira egunotan Bakixan

Hurrengo asteburuan be badago zer gozatu: asto probak, dantzariak, bertsolariak eta Luhartz plaza-taldea, esaterako. ■ A.B.

DIAMAÑARIA

Harrobiko hondarrekin erreka kutsatzea egotziz

Zalloventa harrobiko dekantazio putzutik erreka ur kutsatua bota dabela salatu dabe

Astelehen honetan mañariar baten izenean Durangoko Ertzaintzaren bulegora helarazotako salaketaren barri izan dogu. Domekan, Zalloventa harrobiak Mañaria erreka isurketa kutsakorra egin ebala jaso dabe astelehenean aurkeztutako denuntzian. Balizko delitua jazarri eta isurketa egon zela baieztatzeagaz batera, salaketa epaitegietara bideratzeko eskatzen deutse Ertzaintzari.

Isurketa horretan ingurumenaren kontrako delitu zantzuak ikusten ditue salatzaileek

Harrobiak ezelako isurketarik egiteko baimenik ez daukala dinoe

Egin beharreko azterketak egin daiezela eskatzen deutsee jagoken autoritateei salaketan; izan be, ingurumenaren kontrako delituaren zantzuak ikusten ditue urtarrilaren 11n gertatu zela adierazo eta dokumentatu daben ur kutsatuen isurketan. Zalloventa harrobiak Mañaria errekan ezelako isurketarik egi-

teko baimenik ez daukala-eta, isurketa "ilegala" izan dela joan zen asteburuko nabarmen izan dau salaketa aurkeztu daben herritarren denuntzian. Isurketak Urkiolako natur-gune babestuen barruan gertatzea larria dela azpimarratzen dabe, bestalde, salatzaileek.

Aurrez be, hamarkada oso batean eta, batez be, erreka ur askogaz bajatu izan den egunetan, harrobian sortu ditueen hare, hauts eta zementu hondarrekin kutsatutako ura Mañaria erreka bota izan dabela sarritan ohar-tarazo dabe auzotarrek.

Hondar horreek zurituta eta erreka hondoa sedimentu kutsakorrez zikinduta topatu izan dabenean, azaldu dabenez, Eusko Jauralaritzako Uren Zuzendaritzan jakinarazo izan dabe, baina, lehenengo aldia da euren salaketa aintzat hartzen dabena, azpimarratu gura izan dabenez.

Denuntzia horrek egingo dauen ibilbidea abokatuen laguntzagaz zehaztuko dabela nabarmendu dabe salatzaileek. ■ I.E.

Harrobia ustiatzean sortutako harea, hauts eta zementu hondarrak ei dira erreka bota ditueenak

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

gremioen koordinazioa

urtiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)



DURANGO

Bidegorriaren hirugarren zatia hasiko dabe aurten

Espainiako Gobernuak Tokiko Inbertsioen Estatu Fondoetarako errege dekretuari begira aurkeztutako 15 egitasmoen barruan jaso dau Udalak

Espainiako Gobernuak toki-inbertsioen estatu fondoetarako errege dekretuaren haritik ia 4,86 milioi euro jagokoz Durangori, udal egitasmo eta obren inbertsinoak finantzatzeko. Horren aurrean, 15 egitasmo jaso eta bateratu ditue. Udalbatzarrak atzo onartu zituen, EB-Berdeak, Aralar, PSE-EE, PP eta EAJren aldeko botoekin. Talde Mistoa abstenitu egin zen. Eskulana eskatzen daben lanen bitartez enplegua sortzea eta durangarren bizitza-kalitatea "hobetzea" dabe helburu.

Bidegorriaren hirugarren zatiak eroango dau dirurik gehien; 860.000 euro inguru, hain zuzen. Durangoko institututik Murueta Torreira joango litzake, inguruko kirol azpiegitura eta ugerleku barriak lotuz. Landako eskolatik Garai Jauregira luzatuko litzake gero. Murueta Torre ez eze (650.000 euro), Merkatu Plaza (348.000

euro) eta Santa Ana plaza be bai (340.000 euro) zaharbarrituko ditu Udalak, aurten. Era berean, Sasikoan lurpeko zaborrontziak (228.000 euro) jarri gura ditue, eta baita padel pistak estali (300.000 euro) be. Zabalarra eta Landako eskoletan askotariko egokitze lanak aurrera ateratzeko, bestalde, 262.000 euro inguru lotu ditue,

Bidegorriaren hirugarren fasea aurrera ateratzeko 860.000 euro erabilikok ditu Durangoko Udalak

Merkatu Plaza eta Santa Ana plaza zaharbarrituko ditue Espainiako Gobernuak bideratutako diru laguntzagaz

eta, Tabirako ugerlekuen kanpoaldean drainatze-sistema jartzeko 180.000 euro. Intxaurrendon Udalarena den eraikinean 300.000 eurotik gora eskatuko daben zaharbarritze eta irisgarritasun lanak aurreikusi ditue.

Landako Gunea
Kalebarriko udal liburutegi barri sartzeko plaza berriro urbanizatu dabe (95.700 euro), eta, Landako Guneako urbanizazioa be birmoldatuko (154.230 euro) da, "irisgarritasun-baldintzekin bat" etorri daiten; Alluitz eta Sasikoa kaleen artean errotonda bat egin gura dabela be jakin eragin dabe (199.081 euro). Ezkurdiko plazako aintzira eta kanalak egokitzeko eta kioskoa berreskuratzeko be erabiliko dabe Espainiako Gobernutik eratorritako dirua. Irisgarritasun arau teknikoak jartzeko 567.000 euro erabiliko ditue. ■ A.B.



Durango zeharkatuko dauen bidegorria eraikitzea gura dau Durangoko Udalak.

Harrera ona izan dau Txiki Parkak zabaldu barri daben asteburuan



K. Aginako

Hainbat jolasegaz hornitutako Txiki Parka zabaldu eben joan zen asteburuan, Landako Erakustazokako 3. moduluan. Elkarregaz egoteko, dibertitzeko eta gustura egoteko tokia eskaintzea izan dau helburu Udaleko Kultura Sailak ekimen horregaz, eta zabalduko lehengo asteburu horretan harrera ona izan dau Txiki Parkak.

Urte bi eta bost arteko makina bat umetxok jolasean gozatzeko aukera izan dau, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Uriko gainerako parke publikoen alternatiba estali gisa zabaldu dabe jolasgunea, azaldu dabenez, eta urtarrileko, otsaileko eta martxoko asteburuetan aurrera jarraituko dau ekimenak.

Hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzua

Onartutako Euskara Planak zerbitzu publiko horren sorrera jasotzen dau, besteak beste

2008-2012 urtealdirako Euskara Plana onartu dau Udalak, urtea amaitu aurretik. Euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-tresna bihurtzea helburu dauen planak, sail edo erakundeen arteko hartu-emonerako hizkuntza euskara izatea be lortu gura dau. Erabilera bermatzeko hainbat neurri batu ditue eta Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzu Publikoa sortzea.

Kontra egin dauen bakarra PP izan da, "bakotzak gura dauen hizkuntzan jarduteko eskubidea" daukalakoan. Euskara "inposatu" egiten ei da, "kontrako efektua" sortuz: "euskara ukatzea". Talde Mistoa, aldiz, abstenitu egin da. Gogoratu dau "gitxienekoak" batzen dituen plan hori lehenengo 2007an onartu zela, eta orain

lez "premiazkotzat" jo zen Jarrailpen Batzordea ez dela sortu. Hizkuntza eskubideak bermatzea eta euskara lan tresna lez erabiltzearen "garrantzia" nabarmendu arren, "kaxoi baten sartuta" gertatu den arduraz dagoz.

"Ez da guk amesturiko plana, eta gure hizkuntza eskubideak ez dituen arren %100ean bermatuko, pauso txiki bat da", Aralarren ustez. "Berandu" eta erdaratik euskarara datorren plana dela dino, eta arreta eta ahalegin "handia" jarri beharko dela. "Derrigorean" erabiltzaile izango dituen eta "aspaldi" martxan beharko leuken Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzu Publikoaren garrantzia be aitatu dabe.

PSE-EEK administrazio publikoan hizkuntza ofizial biak erabiltzea bermatzea dela helburu arrazoitu dau Euskara Planaren alde egiteko, eta EAJk "arrazoizkoa" dela, "gura baino astiroago" doan arren: "Trabak egongo dira baina bide onetik goaz". ■ A.B.

2008-2012 urtealdirako Euskara Plana da udalbatzarrak onartutakoa

SANTI ESTANKOA
Hobeto garbitzeko eta opari eskaintza zahala

SANTI ESTANKOA

Fray J. de Zumarraga, 4 Durango • Tel.: 94 620 39 93

AZKARGI GARBIKETAK

Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketara
Kristalizatuak eta abar

Goietan, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 682 09 91

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 681 43 85

▣ MALLABIA

Gastu soziala handituko dabe 2009ko aurrekontuetan



Hirigintza Sailak 2009an parkea konpontzeko lanak eroango ditu aurrera. M.G.

Hezkuntza, Hirigintza, Kultura, Gizarte Ekintza eta Kirol sailek daroz inbertsinorik handienak

Udalak 2.475.610 euroko aurrekontua izango dau aurten. Aurreikusitako sarrerak 2.740.183 eurokoak izan arren, "lehenagoko zorrak ordaintzeko preminak inbertsinoetarako diru-kopurua gitxitu dau", azaldu dau Aitor Loiola alkateak.

Futbito-zelaia estaltzea eta eskoletarako irisgarritasuna, preminazko inbertsinoak

Hezkuntzak inbertsinoen diru-atalik handiena dauka: 440.500 euro. Besteak beste, futbito-zelaia estaltzea eta herri esko-

letarako irisgarritasuna bermatzeko lehenengo fasea aurrera eroango ditue.

Hirigintzak 428.850 euro jasoko ditu. Sail horrek dituen proiektu nagusiak auzoetan gauzatuko ditue. Areition, irrati bidezko autoen zirkuituak hartzen dauen lekuan atsedeen-gunea proiektatuta dago. Horretarako, herrigunetik haraino heltzeko errepidea be konponduko dabe. Arandoñoko errepidea be 2009an eraberrituko dabe. Hirigintzak aurten auzoetako zabor bilketa zentralizatu gura dau. Orraitio euskara elkarreagaz elkarlanean, aurten auzoetako seinalizazioa gauzatuko dabe, auzo-

sarreretan bertako baserrien ize-na eta kokalekua jasoz.

Kulturak eta Kirolek 265.370 eta 74.650 euroko diru-atalak edukiko ditue, hurrenez hurren. Azkenik, Gizarte Ekintzari 147.840 euro egokitu jakoz, baina "horren irizpideek gainerako sailetan eragina dauka", argitu dau alkateak. Esaterako, abenduan aurkeztutako Berdintasun Planaren xedapenek "Udalaren jarduerara osoa" baldintzatuko dabela gogoratu dau Loiolak. ■ Maria González

Auzoetako zabor bilketaren zentralizazioa eta Areitioko atsedeen-gunea dira hirigintza proiektu nagusiak

Udalak emakume denei deialdia luzatu deutse tailer horretan parte hartu daien. Emakumeenganako erasorik gertatu ez daiten, gune arriskutsuak edo beldurra emoten dabenak identifikatu gura ditue, Hirigintza Sailekoek beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko. Jakin eragin dabenez, "herrien antolamenduaketa diseinuak lotura zuzena dauka kaleetan dagoen indarkeriagaz".

Tailerrean parte hartzeko bigarren zita bihar, urtarrilaren 17an, izango da, goizeko 11:00etatik 13:30era. ■ J.G.

▣ ELORRIO

Hiri Debekatuaren Mapa egiten laguntzeko deia

Kaleko segurtasuna hobetzea dabe helburu

Genero indarkeriaren aurkako "beste urrats bat" emon guran, Udaleko Berdintasun Sailak Hiri Debekatuaren Mapa osatzeko tailerra gaur bertan jarriko dau martxan. 19:00etan kultur etxean ekingo deusie herriko bazter ilun eta bakartien zerrenda egiteari.

Tailerrean ateratako ondorioekin, Hirigintza Sailak herrian beharrezkoak diren hobekuntzak egingo ditu

▣ DURANGALDEA

Hainbat protesta ekintza izan dira egunotan AHTaren aurka

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako hainbat protesta ekintza izan dira asteon. Atzo, AHT Gelditu Elkarlanak deituta Durangoko Batzokiaren aurrean elkarretaratzea egin eben, "EAJk txikizinoaren eraikuntzan daukan erantzukizuna salatzeko". Euskal Herriko hainbat lekutan egin da deialdia. Bestalde, eguazten goizean, lau lagun atxilotu zituen Ertzaintzak Zornotzan (arratsaldean aske itzi zitueen), AHTaren lurren desjabetze-akten kontrako protestetan; beste hainbat identifikatu zitueen. Espainiako Sustapen Ministerioi ordezkaririk joan ziren aktak sinatzera. Bihar, Elkarlanak Urbinan deitu dau manifestazioa, 12:00etan, *AHT Gelditu! Lurra berreskuratu!* leloagaz.

▣ ABADIÑO

San Anton eguna ospatuko dabe zapatuan Urkiolan

Baserritarren eta abereen jagole den San Anton Abad gogortuko dabe bihar Urkiolan, usadioari eutsiz ogia ez eze baserriko produktuak be bedeinkatuz. Urkiolako santutegian, 12:00etako meza nagusia ez eze, 13:00etan eta 18:00etan be izango da ospakizuna. Aurtengo leloa, barriz, *Ogia bedeinkatu partekatze* da. Domekan, errepetizino eguna izango da. Ordu berean izango dira ospakizunak; meza nagusia amaitzean, barriz, dantzariak arituko dira eta San Anton errifa be egingo dabe.

▣ DURANGO

Ofelia Hernandezen kasuko epaia berretsi dau Gorenak

Durangoko Udalak zigorra handitzeko eskatuz jarritako helegitea ez dau aintzat hartu eta Ofelia Hernandezen hiltzailearen aurkako epaia berretsi dau, asteon, Espainiako Auzitegi Gorenak. Orain lau urte Felipe Ardanazak Ofelia Hernandez bikotekide ohia labankadaz hil eban haren seme-alaba bien aurrean, Durangon. EAEko Auzitegi Nagusiak 17 urte eta bederatzita hileko zigorra ezarri eutsan, eta Gorenak sententzia berretsi dau.

▣ BERRIZ



J. Fernandez

Sagardotegi ibiltariagaz hasiko dira gaur Sanantonioak

Sagardotegi ibiltariagaz abiatuko ditue, gaur, San Antonio jaiak Berrizen. Olakuetan izango dabe hitzordua, 19:30ean. Halan barreiatuko da jai giroa. Pilota txapelketako finalak jokatuko ditue bihar, 19:30ean, eta domekan BTT martxa hasiko da 10:00etan. Jarraian, *Ino, Ino, Ino, badator Bonbardino* umeentzako antzerkia hasiko da, eta 19:00etan Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberen *Internet Kafe*. Datorren asteburuari begira, hilaren 25erako, Nekazaritza eta Artisautza Azoka eratu dabe, eta 26rako harrijasotzaile eta trontzalariekin herri-kirol jaialdia. Azkenik, urtarrilaren 19an, astelehenean, doan izango dira barrakak.

BERBAZ >

“Izurtzarrak herrian gelditu daitezzen, etxebizitzak eraikitzea beharrezkoa da”

Babeseko etxebizitzak bultzatzea EAJren lehentasuna dela azaldu deusku Oskar Zarrabeitiak.

**Oskar Zarrabeitia •**

Izurtzako zinegotzia (EAJ)

▪ Administraria

▪ 32 urte

Azken hauteskundeetan Izurtzako Udalean gobernu aldaketa gertatu zen. EAJko zinegotzi Oskar Zarrabeitiak 2007ko hauteskunde kanpainako proposamena eskuan hartuta, sasoi haretan herritarrei plazaratutako helburuak betetzeko ilusino berberagaz jarraitzen dabela azaldu deusku.

Azken hauteskundeetan EAJ oposiziora pasatu zen. Aldaketa horren gaineko hausnarketarik egin dozue?

Izurtzako 100 bizilagunek demokratikoki erabaki eben egun gobernuan dagozenek herriarentzat hain garrantzitsuak diren proiektuak –etxebizitza, hiri-ordenamendua, saihesbidea...– kudeatu ziezela. Tamalez, emaitza horreek ez doguz ikusi.

Batzorde baten inbertsinoak dokumentu batean jasotzeko proposamena egin zendueela azaldu dozue.

2009ko aurrekontuak lantzeko batzorde batean Gobernu Taldeak inbertsinoak soberakin egingo zirela azaldu eban; beraz, atal hori hutsean gelditzen da. Egoera horren aurrean, inbertsinoetako eranskin batean, 2009ko proiektuen zerrenda egiteko

gu. Lehenik eta behin, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra definitu beharko litzateke, herria zer norabidetan hazi behar den zehazteko.

Babeseko etxebizitzak noizko?

Hirigintza arloan lan handia egin behar dogu ordenamendu eta planifikazio aldetik. Herriaren morfologia kontuan hartuta, bi lursail definitzea proposatzen dogu: hirigunea lehenengo eta behin, eta BI-623 errepidearen eta Mañaria errekararen artekoa bigarren.

Proiektu hori zelan gauzatuko litzateke?

Hirigunean biztanle kopuru handiena biltzeko planeamenduan beste aldaketa batzuk egin beharko litzatekez; frontoia lekualdatzea, esate bate-

“Inbertsinoak soberakinekin eginez gero, atal horretan 2009an ez dogu gasturik”

Eta saihesbidea?

Plan sektorialean, Aldundiari Izurtzarentzat saihesbidea eskatu gura deuskie. PTPak, barriz, ibilbide alternatiboa aitatzen dau, ez saihesbidea. "Etxeko lanak" egin badoguz eta saihesbidearen errekonozimendua eskatzen badogu, zergaitik definitu dabe partehartze foroetako herritarrek saihesbidea herri osorako beharrean zati baterako?

Industriarenean gaia zertanda?

Industria batzuk legalizatzeko zain gagoz, ez daukagu ezelako barririk. Gobernu Taldea oposizioan zegoenean hainbeste eskandalizatu eban gaiak bardin jarraitzen dau. AR2 industriarenean proiektuak epaitzietan jarraitzen dau. ■ Jone Guenetxea

“PTPak Izurtzan onartzen dauena hiri-garapen jakin batez lotutako ibilbide alternatiboa da, ez saihesbidea”

2009ko aurrekontuekin bat zatorazie?

2007ko maiatzean Izurtzak 600.000 euroko soberakina izan eban, eta 2008an inbertsinorik ez dela egin kontuan hartuta –80.000 euroko diru-atala etxebizitza publikoak egiteko ez da exekutatu–, 2009ko aurrekontuetarako ez da aldaketarik aurreikusit; KPI igoera baino ez.

eskatu genduen. Aurtengo inbertsino errealek azaltzen dituen dokumenturik ez dabe egin.

Izurtzako beharrezko artean, zeintzuk dira EAJren lehentasunak?

Izurtzak ezin leike biztanleak galtzen jarraitu. Helburu hori betetzeko etxebizitzak eraikitzeari garrantzitsua deritzo-

Zelan baloratzen dozu legegintzaldia?

Alderdi politiko legez, balorazio oso positiboa da. 2007ko hauteskundeak baino hilabete batzuk lehenago, Izurtzaren orainaren eta etorkizunaren inguruan hainbat proiektutan bat genduzen lagun talde bat gogotsu elkartu ginen. Sasoi haretan azalduetako proiektuei eusten deusiegu.

Eta gaur egungo gestinoari zer deritzozue?

Indefinitzioa: berba horrek azaltzen dau ondoen Izurtzako Udalean gaur egun bizi dogun egoera.

EKONOMIA[>]

> DURANGO

CNT sindikatuak egoitza zabaldu barri dau Durangon

Astegunetan arratsaldero dago zabalik Komentu kaleko 22an daukien egoitza; Bilbon, Galdakaon eta Barakaldon be badaukie egoitza Bizkaian

Euskal Liburu eta Disko Azokagaz bat eginda berbaldiak eskaini zituen arren eta CNT Bizkaia-aren webgunearen bitartez hartu-emonean jartzeko aukera egon arren, astelehenean zabaldu dau ofizialki egoitza barria CNTk Durangon. Bizkaian laugarrena da berau; Bilbon, Galdakaon eta Barakaldon be badaukie.

Komentu kaleko 22an zabaldu dau egoitza CNTk. Durangaldeko hainbat afiliaturen ekimenez: "Anarkosindikalismoa defendatzen dogu. Langileon arazoak langileok defendatu behar doguz, ez gara inogaz fio. Klase gidariarengan konfidantza aspaldi galdu genduen". Dinoenez, "eskubideak ez dira emoten. Arbasoek asko sufritu eben borrokaz lortzen diren lan-baldintza onak eskuratzeko".

"Anarkosindikalismoa bultzatzen dogu; langileon arazoak langileok defendatu behar doguz"

Ofizialki astelehenean zabaldu eban CNTk Durangoko Komentu kaleko bulego barria

Astegunetan egunero dago zabalik, arratsalde, bolondresekin: "Langile batek lanpostua izten badau sindikatu funtzionario lez jarduteko, azkenean egokitu egiten da. Gainera, orain estatuak sindikatuen aurrekontuaren erdia ordaintzen dau. Benetako etsaiak balira ez litzake hori gertatuko".

"Nahiko hazi" ei dira Sindikatu nagusien indarrak ez daukiela aitortu arren, hiru urteotan "nahiko hazi" ei da CNT: "Espainian, eta Euskal Herrian be bai. transizioniko sindikatu oportunistok bazekieen protagonismoa edukitzeko euren burua kapitalari saldu beharko eutseela. Gukez geuntsan horri jarraitu eta hori ordaindu egiten da. Ideiak mantentzeagaitik harro gagoz". ■ A.B.



Lucio Urtubia anarkista ezagunak berbaldia eskaini eban abenduan egoitzan bertan. Judit Fernandez

> DURANGALDEA

EPEZ programaren deialdi barria egin dabe

Europako enpresetan aurreneko lan-esperientzia izan gura daben Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) tituludunendako EPEZ (Enpresetan Praktikak Europar Zehar) programaren 3. deialdia zabaldu dau EHUko Bizkaiko Campuseko Errektoreordeak. BBK-Gaztelanbidean Fundazioaren laguntzagaz eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa-Durangaldeko Behargintza eta Lanbideagaz (Euskal Enplegu Zerbitzua) elkarlanean egin dabe deialdia.

Bizkaian erroldatuta dagozen eta EHUko titulua daukien 45 lagun izango dira onuradunak

Bizkaian erroldatuta egonda, EHUko edozein campus edo fakultateko 45 tituludun barri izango dira onuradunak. Alemanian, Frantzia, Italia, Portugalen, Erresuma Batuan eta Txekiar Errepublikan egingo ditue laneko praktikak. Atzerriko egonaldiak 14 asteoak izango dira — apirila eta uztaila bitartean —, zati bitan banatuta: hizkuntza- eta kultura-ohiturak ikasiko ditue lehenengo hiru asteetan, eta, beste 11 asteetan harrera-herrialdeotako enpresetan laneko praktikak egingo ditue. Egonaldiko gastu nagusiak ordaintzeko beka jasoko dabe, Leonardo da Vinci Agentziaren baterako finantza-ketari esker. ■ A.B.

Alemania, Frantzia, Italia, Portugal, Erresuma Batua eta Txekiar Errepublikan egin ditue praktikak

■ kolaborazioa



Mauricio Garcia UGT sindikatua

Congratulations

Mundu osoa krisiak jota dabilen garaioan, berri onak oharkabean pasatzen dira sarri, baina ona da batzuek langileentzako mesedegarri diren gertaerak ere gogoratu ditzagun.

UGTkook, urriaren 7an Espainia osoan zehar eta abenduaren 16an Estrasburgon, bozketa baino egun bat lehenago, mobilizazioak egin ditugu Europako Parlamentuan 65 orduko lanaldiaren alde prestatzen ari zirenen kontra. Bada, garaipen hori ospatu behar dugu; izan ere, Europako Parlamentuak, abenduaren 17an, gehiengo osoz bota zuen atzera zuzentzarau hori, horrek esan nahi duen guztiarekin: Europa sozialaren garaipena eta langileen oinarrizko eskubideen garaipena; atsedena, aisialdia, ongizatea, familiarbizitzarekiko bateratzea, osasuna, laneko segurtasuna...

Europa Sozialaren garaipena ospatu behar dugu, 65 orduko lanaldiaren kontra

Emaitza hori Europako Sindikatuen Konfederazioak egindako lanari zor diogu, eta baita Espainiako Parlamentuak eta Alejandro Cercas eurodiputatu sozialistak egindakoari ere, bera izan baita Europako Parlamentuan zuzentarauaren aurkako postuluak aurkeztu eta defendatu dituen.

Zer gertatuko zen zuzentzarauak aurrera egin balu? Batetik langabeziara bidaltzen gaituzte eta bestetik 65 orduan lan egiteko eskatu. Kapitalismo zeken eta gupidagabe honek —langileok eta aita estatuak ordaintzen ari garen finantzakrisia eragin duenak— ez digu treguarik ematen, bere interesetan eta poltsikoan baino ez du pentsatzen.

Beste behin ere, mugimendu sindikala aurretik doa, eta mundu osoan hedatu den eta langileak esplotatzen dituen korrante neoliberalak atzera egin dezan lortu du, guri arrazoia emanez. Langileen oinarrizko eskubideen murrizketen aurrean, mobilizatu egin behar dugu aurrera jarraitu ez dezaten.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

Podología 100. Erreguladua

• Oinetako patologiak
• Neurri egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON BERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 100. Erreguladua

KULTURA[>]

ANTZERKIA > EMANALDIAK

Geroa antzerki taldeari omenaldia


Orain hiru hamarkada, 1980ko hamarkadan, Geroa taldea ezagutzera eman zuen Dario Foren *Muerte accidental de un anarquista* antzezlanak. Autore italiarrak berak esaten zuenez, historian handi eta garrantzitsu izan den antzerkian bezala obra honetan ere diskurtso politiko eta soziala ere badago.

Polizia etxe batean atxilo dagoela, leihotik behera jausita hiltzen den eta terrorismoa egotzen dioten trenbideetako langilearen istorioarekin, botereari kritika zorrotza egiten zaio urtarrilaren 17an, 20:00etatik aurrera, berriz ere Durangon ikusgai

izango den komedia beltzean. Geroa antzerki taldean ibilitako Paco Obregon antzezlea komisario-buru lanetan ikusteko aukera izango da.

Irudi honetakoa izan zen, baina, Durangon izan den antzerki talde profesional bakarra sortu zela 30 urte betetzen direnean San Agustin kulturgunean antolatutako omenaldiko lehenengo hitzordua.

Pepe Ortegak orain dozena bat urte idatzitako testuan oinarritutako lana izan zen urtarrilaren 10ean San Agustin kulturgunean: *Kampillo o el corazón de las piedras*. Alfonso Torregrosa antzezlea berriro Durangon izan genuen. ■ I.E.



Kepa Aginako

13 Nederlanderaz idazle

Amsterdamen bizi, idatzi eta lana nederlanderaz argitaratzen duen Kristina Goikoetxea itzultzaile gaztea ezagutzeko aukera izan dugu Durangon



14 Hogei urte ametsa eraikitzen

Asier Bastida argazkilariak Saharan hartutako argazkien erakusketa aurkeztu dute asteon Abadiñoko Errota kultur etxean.

ANTZOKIA > URTEURRENA

Zornotza Aretoa sortu zela 15 urte dira aurten

Bertan entseatu ohi duen Markeliñek 'Terapia?' antzezlanaren taularatu zuen urteurrena ospatzeko

Hamabosgarren urteurrena du Zornotza Aretoa hasi berri dugun urte honetan. Iragan urtarrilaren 9an bere lanak bertan sortu izan dituen Markeliñe taldearen azken lana ikusiz ospatu zuten antzokiaren urtebetetzea.

Kalitateko programazioa eskaintzea ardatz



Judit Fernandez

Terapia? antzezlanaren izenarekin hamabosgarren urteurrenean. Datozen egunetan, baina, Zornotza Aretoa azken 15 urteetan egin duen eran, antzerki emanaldi gehiago izango dira: besteak beste, *Los Angeles no tienen hélices* ikuskizuna izango da urtarrilaren 30ean, 21:00etan, eta Agirre Teatroaren *Putzuak lehortzen*; urteurrena ospatzeko baliatu zuten Markeliñeren *Terapia?* lana bezala, amodioaz mintzo den lana da Maite Agirre, Ander Lipus, Ines Martínez de Iturrate, Joseba Usabiaga eta Erik Probanza antzezle dituen eta Garbi Losadak zuzentzen duen *Putzuak lehortzen* antzezlanaren. Otsailaren 13an izango da emanaldia, 21:00etan.

Antzerkia, musika eta zinema esakintza hilabeteotan

Musikak eta zineak ere betetzen dute kulturaren aretoa Zornotzan, eta urtarrilaren 30ean, esaterako, Iñaki Salvador piano-jotzaile donostiarra izango da gonbidatu. Otsailean, gainera, musika eta zinea uztartuko duen ziklo interesgarria esakiniko dute: Bob Dylan, Portugalgo fadoak, Oligor, The Clash eta Joe Strummer izango dira, besteak beste, Zornotza Aretoko protagonista. ■ I.E.

LEHIAKETA >

Dokumental bat estreinatuko dute Elorrioren hilero

Elorrioko kultur eskaintza alternatiboa ugaritzeko helburuz ipini dute martxan Elorrioren *hilean-behin.doc* proiektua. Europan ekoizten diren dokumentalak eskainiko dituzte Elorrioko Iturri kultur etxean urte honetako hileko lehen egunetan.

Hileko lehenengo egunetan izango dira emanaldiak

CinemaNet Europe izeneko egitasmo honen lehenengo emanaldia atzo, egunetan, izan da Elorrioren; salbuespena beraz, esandako moduan hileroko zine dokumentala ikusteko zita hileko lehen egunetan izango da eta aurrerantzean. Erresuma Batuan sortutako *The English Surgeon* izeneko filma izan zen, beraz, estreinakoa.

Urte honetan, beraz, aldi berean 44 hiri eta herritako hainbat zinema aretoetako pantailetan estreinatuko dira gai sozialak lantzen dituzten eta Europan ekoiztutako izan diren 12 dokumentalak; tartean, Elorrioren, Barzelonan, Madrilan edo Palma hirietan ere bai. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



J.M. Urrutia "Txotxe" Irakaslea

Merezitako omenaldia

San Agustin kultur guneak duela 30 urte sortu zen Geroa taldeari egingo zaion omenaldirako gonbita luzatu digu; bai programazioan bai erakusketan baten bitartez. Nahiz eta orain talde bezala bizirik egon ez, bere ibilbidean sortutako lanak eta oraindik ere jo eta ke lanean diharduten aktoreen antzezlanak bertako oholtzara ekarriko dizkigute San Agustinen. Txalogarria, eta merezitako omenaldia.

Txalogarria da Geroari San Agustinen egiten ari zaion omenaldia

30 urte ez dira oilo baten ostikada bat, eta nire historia propioan horrelako zaku bete istorio sortzen ditu. Hasi berri zen 1980ko hamarkada hartan, Deba bailaran buru-belarri ari ginen euskal antzerkia birsortzen eta bultzatzen.

Gazteak ginen oso, eta gaztetasunak ematen duen indarrarekin mundu berri bat sortu nahi genuen, eta, bertan, antzerkia merezi zuen tokian jarri. Datak ez ditut ongi gogoratzen, baina bai antzerki topaketa batzuk antolatuta genituela herrian, eta partaideetako bat Geroa zela, *Kaixo Agirre* antzezpenarekin.

Muntaia ausart eta nortasun propiodunak gauzatu zituen Geroak

Asko borrokatu eta gero, Institutuko gimnasioa lortu genuen emanaldia bertan egiteko, eta denok aho bete hortz gelditu ginen ikusitakoarekin. Proposamen eszeniko ausarta eta era berean "Agirre"-ren antzezpen bikaina. Oraindik ere entzuten dut "Lope de Agirre vasco de Oñate, ira de Dios" haren ohiartzuna.

Geroak beti gauzatu ditu muntaia ausartak, nortasun propioa zeukatenak, eta garai zein inguruarekin oso lotuak guztiak. Horrelako indar sortzaile batek Durango eta bere inguru hurbila zipriztindu zituen, eta bildur barik esan daiteke bere itzala oraindik ere igartzen dela.

Beraz, 30. urteurren honen aurrean txalorik handiena: "Geroa, vascos de Durango, ira de Dios".

ERAKUSKETA > ARGAZKIGINTZA



Leo Simoes iurretarraren lana Durangoko Museoan da orain

Argazkigintza artistikoa landuz, Granadan bizi den argazkilariaren erretratuak ditugu Museoan

Abentura bestearekin izeneko argazki erakusketa dago ikusgai egunotan Durangon: erretratu erakusketa da Museoak hilabete honetan hartu duena. Leo Simoes ezizenarekin aurkezten den argazkilariaren lanak dira bisitariak Durangoko Museoan horretan zintzilikatuta aurkituko dituenak; aurretik, Espainia eta Portugalgo hainbat txokotan, eta, iragan irailan Iurretako Ibarretxe kultur etxean erakutsitakoak dira erretratuok; eskualdean, Iurretan izan genituen lehenengoak.

Iurretatik 1990eko hamarkadan alde egin zuen argazkilariak, eta 2006an landutakoak dira erakusgai daudenak: Granadan bizi eta lan eginda osatutakoak.

Argazkigintza artistikoan dihardu orain 20 urtetik, eta tailerrak ere ematen ditu bizi den lekuan. Bigarrenez eskualdean ikusgai dugun *Abentura bestearekin*, orain bi urteko udazkenean eta neguan egindako argazkien saila da; autoreak dioenez, lantzeko irrikaz zegoen erretratuari heldu zionean egindakoak.

Orain urte bi egindako argazkien saila ekarri du Durangora egileak

Ezagunei egindako erretratuak betetzen dute Museoan

Bestearen edo hurkoaren irudikapenaren bitartez, norbere barnerako bidaia da argazkilariak lan honekin proposatzen duena. 'Psiko-argazkiak' hitzarekin izendatzen dituen argazkiok, eta gogoe-tarako jartzen ditu egileak.

Argazkigintza, egunerokotasunaren poesia moduan ulertzen duela esaten du Simoesek. Entzute handiko izena ez duten artistek bidea oso zail dutela euren lanak erakusteko ere esan digu, eta askotan politikariek euren onerako baliatzen dituztela euren lanak. Argazkigintzaren arloan zein publizitatearen eta komunikabideen munduan ere hainbat lan egiten ditu Simoesek.

Bizi izan den lekuetan, urteetan bere argazkilari lana ontzen jardun du Leo Simoes ezizenarekin sinatzen duen iurretarrak, eta horren emaitzetariko bat da Museoan erakusketarako batuta-ko erretratuak islatuak. ■ I.E.

LITERATURA > ELKARRIZKETA

Itzulpengintzan egiten dozun lanaz gainera, idatzi, sortu be egiten dozu?

Filologia holandesa amaitu nebanean, Euskal Herrian nederlandera irakaslea izatea zen nire asmoa, eta literatura holandarra itzultzea. Harek ez eban urten, eta orduan hasi nintzen hango medioetan idazten, eta *Egunkaria* eta *Berriara* be nire kultura arlorako kolaborazioak bidaltzen. Idazle eskolan sartzeko frogak egiten be hasi nintzen, aldi berean. Ez nekien oso ondo bueltatu ala ez, eta nire buruari galdetzen neutsan zer zen gura nebana: krisi garai lako bat izan zen.

“Lehenengo lana burututa, aspaldiko ametsari heldu neutsan: Afrika”

Idazle eskolan sartu zinen.

Utrecht-eko idazle eskola agertu zen nire bidean: konturatu nintzen itzulpenak egin ez eze, nire istorioak kontatzeko beharra neukala. Antzerkirako gidoiak, olerkiak eta prosa lantzen genduzen eskolan, irakasle guztiak idazleak genduzen eta bost ikasle baino ez ginen. Guztia idazten genduen nederlandera, eta ni nintzen atzerritar bakarra. Bi urtez egon nintzen han, eta *freelance* moduan itzulpenak egiten hasi nintzen.

“Utrecht-eko idazle eskola nire bidean agertu eta han hasi nintzen idazten”

Nederlandera hasi zinen idazten?

Beti neukan zalantza, gai izan-go ete nintzen nire ama hizkuntza ez denean istorioak kontatzeko. Egun batean, gogoan dot Kader Abdolak idazle iraniarra etorri zela eskolara, eta nire zalantzak ikusita esan eustala: “garrantzitsua kontatu behar dozun istorioa da, ez darabilzun hizkuntza”. Musikagaz konparatu eban: sortzen dozun melodia da funtsezkoa, ez hainbeste instrumentua. Bere auzotarrak zuzentzen eutsezela hasieran testuak esan eustan Abdolakek. Horrek lagundu eustan beldurrak galdu eta nederlandera idazten hastera, eta nire lana aldizkarietara eta De Geus argitaletxera bidaltzera.

“Hasieran zalantza neukan nire ama hizkuntza ez denean idazteaz”

Eguneroko bizitzan darabildan hizkuntzan idazteko beharra izaten dot

Itzultzailea da ikasketaz Kristina Goikoetxea Langarika. Amsterdamen bizi da gaur egun, eta Afrikan egin ditu zortzi hile. Nederlandera idazten dau, poesia zein narratiba



I.E.

Zer liburu itzuli dozuz?

Lehenengo Hegoafrikako idazle baten liburua izan zen: Riana Scheepers idazlearen *La cosa del fuego*. Bartzelonako Icaria argitaletxearen bitartez itzuli neban gaztelarara. Liburu hori itzultzean oharatu nintzen oso lan polita dela, baina zure istorioa kontatzerik ez dozula. Prozesu luze baten ondoren, Amsterdamen nengoela konturatu nintzen gauzak kontatu eta olerkiak idazteko beharra neukala.

Eleberri bat be argitaratu zenuen orain urtebete.

Lau urte egon nintzen eleberria prestatzen, eta amaitutakoan hainbat argitaletxetara bidali neban lana. Kader Abdolaken lanak argitaratzen zituen argitaletxeagaz –atzerritarren lan asko argitaratzen ditue– kalera-tu neban lehenengo lan luzea. Nire ogibidea itzulpenak egitea zen oraindino: nederlandertik gaztelararakoak izaten dira nire itzulpen gehienak.

Zure azalean bizitako inmigratzi- noari buruzko istorioa da lehenengo eleberrikoa.

Kasu honetan, herritik hirirako inmigratzi prozesua da liburuaren oinarri: aitita eta biloba dira protagonistak. Izan be, urteotan guztietan izan dodan

ez hemengo ez hango izatearen eta inmigrante izatearen tentsazioa dago istorio horren atzean: nik neuk bizitako nostalgia bizipen hori. Azkenaldian, dena dela, sentipen horri buelta emotea lortua dot: leku guztietan gustura sentitu eta jatorrizkoa distantziatik begiratzen ikasi dot.

Baina ez zinen han geratu...

Ez. Lehenengo eleberria argitaratu eta zikloa beteta, aspaldi neukan ametsari heldu neutsan: Afrikara bueltatzea. Eta azkenengo zortzi hilabeteak han emon ditut, bigarren eleberria han hasi ahal izateko. Barruan sentitzen neban momentua zela, nahiz eta jente askok esaten eustan ez zela momentua...

Hasi zara zeozer idazten?

Bai. Bigarren eleberriko ideia batez joan nintzen hara, eta Mozambiken, Maputo hirian nengoela ipuinak idatzi nituen

“Nederlandertik gaztelararakoak izaten dira nire itzulpen gehienak”

“Afrikako kontakizunak bidaia liburu batean bildu gura neukez”

bi hilabete. Argitaletxeagaz hartu-emonean bidaia liburu bat idatzi gura dodala erabaki dot: han bizitakoa modu berezi batean kontatzea gura dot. Lehenengo liburua idazteko hiru urte emon banituen, honegaz be antzera izango da...

Nederlandera kaleratutako lehenengo eleberria zuk zeuk itzultzeko lana ez dago zure asmoen artean?

Lau urtean pertsonaia eta istorio beragaz lanean jardun ondoren, proiektu barri bati ekiteko gogotsu nago. Gainera, konturatu naiz nire liburua itzultzeko saiakera egiterakoan, buruan sortu eta paperean nederlandera ipinitako ideia itzultzeko, idatzitako berbetara barik, hasikerako buruko ideiera bueltatu behar dodala; eta denpora eta kontzentrazio handia eskatzen dau irudi hori errekupe- tzeak. Bigarren eleberria idatzi

eta asko ikastea da nire lehen- tasuna: asko dot idazle moduan ikasi eta lantzeko.

Eta nederlandera ez den beste hizkuntza batean idaztea?

Afrikar konturatu naz, Herbe- retan ez banago ez dodala nede- landera idazteko arrazoirik. Nire eguneroko hizkuntzan kon- tatzeko beharra izaten dot.

“Esaldi bakotxean dena modu oso berezian esaten saiatzen naz”

Eta idazkera zelakoa dozu?

Esaldi laburrak idazten ditut asko, eta forma asko zaintzen dot: errekurso guztiak ez ditu- danez, esaldi batean dena modu oso berezi batean esaten saia- tzen naz, errekurso gitxigaz.

Prosa, olerkia zein antzerkia idazten dozu...

Sentitzen dot prosan denetari- ko aukerak dituela idazleak: dia- logoak dagoz –niri dialogoak asko gustatzen jataz–, eta oler- kia ez, baina poesia be egon lei- teke prosan.

ERAKUSKETA > ARGAZKIGINTZA



Saharan sortutako irudiak eta berbak

Abadiñoako Errota kultur etxean, urtarrilean zehar

urtarrilaren 28a arte, kultur etxea zabalik dagoen orduetan ikusgai izango dena.

Aurkezpenean, Abadiñoako Udaleko Marisa Vazquez kultura zinegotziak onartu du herrian erakusketarako baliatu behar izaten daben espazio hori ez dela behar-bada egokiena; argitasun aproposik ez dauka eta formatu handiko erakusketak hartzeko espazio arazoak izaten omen dituzte. Azpimarratu du, baina, *20 urte ametsa eraikitzen* bezalako erakusketak bat hartzeko aukera pasatzen uzteko espazio desegokia ez dela arrazoi nahikoa.

Errota kultur etxeko hiru solairutako hormetan eskegita topatuko ditu bisitariak Euskal Fondoaren

bitartekaritzarekin Abadiño-ra ekarritako Bastidaren irudiak, eta baita Saharan izandako egonaldien ondoren hainbat idazlek idatzitako gogoetak: Txema Anda, Mikel Valverde eta Kirmen Uriberen testuak dira erakusketako 20 irudien osagarri. Irudietan, saharar herriko jendea eta bertako egunsenti zein paisaiak daude argazkietan gordeta, Vazquezek azpimarratu duenez, "kalitate izugarriko argazkietan". ■ I.E.

Hogei argazki daude ikusgai Errotan, testu banarekin

Saharako errefuxiatuen kanpamenduetako, Tinduf eta Smara bezalako lekuetako egunerokotasunari Asier Bastida argazkilariak egindako argazkiak izango dira urtarrilean Abadiñoako Errota kultur etxean bisitagai.

Azken asteetan, Erkidegoen Jaialdiaren harira Durangon eta Berrizko kultur etxeko sarreran izan den *20 urte ametsa eraikitzen* erakusketak da astelehen honetan ikusgai ipini dutena Errotan eta



Jone Irazabal ipuin-kontalari elorriarra arreta handiz entzun zuten umeei

Hiru ipuin kontaketa saio izan dira urtea hasteko Elorrioko Udal Liburutegian. Elorrio herri kastetxeko, Txintxirri ikastolako eta Lourdesko Ama ikastetxeko Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako 130 haurrek hartu dute parte bertan. *Munstruo Erraldoia*, *Marixuren istorioa* eta *Txepetxa kabia egiteko zuhaitz baten bila* ipuinak arretaz entzun dituzte Jone Irazabal ipuin-kontalari elorriarraren ahotsetik.

MUSIKA > KONTZERTUAK

Sarrerak agortuta eta Plateruena gainezka

Madrilatik zetozen Vetusta Morla eta Dinero taldeen joan zen barikuko kontzerturako txartel guztiak agortuta zeuden bariku eguerdirako

Ortuellako Ama Say eta Berako Borrokan taldeak dira asteburu honetako Plateruena antzokiko eskaintzak, eta Durangon blues eta jazz musika egiten duen Mongo eta bere taldea, berriz, datorren barikuan izango da disko berriko kantak jotzen. Urtarrilaren 23an izango da Mongo taldearen aipatutako diskoaren aurkezpena.

Joan zen asteburuan, iragan barikuan, berriz, sarrera guztiak agortu ziren eta giro beroa izan zen Durangoko Plateruenean. Espainiako pop-rock independentearen ikur berrietako bat den Vetusta Morla taldea etorri zen Madrilatik *Un dia en el mundo* izeneko diskoko kantak eskaintzera.

Taldearen zutabetzat dituzten "konplizitatea, pasioa eta zuzeneko musikaren indarra" oinarri hartuta aritu ziren ETB3 telebista

katean zuzenean eman zuten Platerueneko emanaldian.

Non bukatu edo non hasi ez, eta zoriaren arabera eramaten uztearen inguruan kantatu zuen Madrilgo taldeak, eta, hain zuzen ere, elurrak eta zoriak hein batean

Dinero taldeak ez zuen jo, kideetako bat elurrak harrapatuta

belztu egin zien gaua oholtzara Vetusta Morla taldearen aurretik igotzekoak ziren Dinero taldeko hiru lagunei; izan ere, besteak beste Hyssopus eta Sei Urte taldeetan ibilitako Ekain Elortza bate-



Kepa Aginako

ria-jotzaile berriztarrak Madrilen beste bi musikarirekin sortu duen taldeko kideetako bat errepidean harrapatuta utzi zuen elurrak, eta ezin izan zuten emanaldirik eskaini. Azkenengo abestian, baina, Dinero taldeko abeslariak Vetusta Morlarekin kantatu zuen, hala-beharrari eta zoriari aurre hartuz bezala, txarto hasitako eguna hobetzen hasteko.

Existitzen ez diren hitzek salba gaitzaketela batzuetan ere kantatu zuen Plateruenean Vetusta Morlak, barbarik egin barik eta "galtzekorik ezer gehiago ez dugunean" izango garelako libre.

Sentimendu handiz kantatu zituzten Plateruenean batutako lagunek ere goiko argazkian jaso dugun Vetusta Morla talde madril-darraren kantak. ■ I.E.

Plateruena bete-bete egin zen Vetusta Morla ikusteko

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 16 22:00etan
AMA SAY + BORROKAN (Bera)
KONTZERTUA. Sarrera: 10 euro.

URTARRILAK 20 19:30ean
DANTZALDI IBILTARIA
AIKO TALDEA. Sarrera doan.

URTARRILAK 23 22:00etan
MONGO
Disko berriaren aurkezpena
KONTZERTUA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

GEROA
ANTZERTU TALDEA
urte años

Muerte accidental de un anarquista

Suripanta teatro (Badajoz)

Urtarrilak 17
larunbata 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALAK

HITZ

Liburudenda

Tf.: 94 601 07 76

DANBAKA >

Hiru talde, hiru ez ohiko proposamen eta bi disko final handirako

Ikuslearen saria gaur bertan erabakiko dute kontzertura gerturatzen direnek

Berako Petti musikariak banda elektrikoa ekarriko du finalari amaiera dotorea emateko

Jon Bereziartua > Bergara

III. Danbaka musika lehiaketa gaur amaituko da. Lehiaketa geografikoki zabaltzeko hautua egin den 3. edizio hau heldu da itxarondako final handira. Atzean, sei emanaldi gogoangarri utzi ditugu; Debagoieneko, Debabarreneko eta Durangaldeko 24 musika talderen ordu erdiko 24 erakustaldi. Aurreko bi edizioetan bezala, estilo aniztasuna izan da nagusi. Baina 3. edizioan, aurreko biak gutxietsi barik, musikarien maila handia nabarmendu behar da. Hala, epaimahaiak inoiz baino lan zailagoa izan du hiru finalistak aukeratzeko.

Honako hiru talde hauen artean aterako da irabazlearen izena: Bergarako Adi Holden, Mutrikuko The Wet Band eta Eibar eta Ondarroako Norman.

Berritasunak finalean

Gaurko final handirako berritasunak izango dira. 22:30ean

hasiko da Elgetako Espaloian. Alde horretatik, berritasunik ez. Baina, zazpigarren eta azken emanaldi berezi horrek aldaketa txiki batzuk izango ditu. Aipagarriena da hiru finalistek eskainiko dituzten kontzertuak 40 minutukoak izango direla; hamar minutu luzeagoak.

Adi Holden igoko da lehena, gero The Wet Band eta, azkenik, Norman. Zuzeneko musika, baina, ez da hor etengo. Izan ere, Petti eta bere banda elektrikoa igoko dira Espaloiko taula gainera, talde gonbidatu moduan.

Faboritorik ez

Hiru finalistek aukera berberak dituzte lehiaketa irabazteko; ez dago faboritorik. Finalean egoteko arrazoiak ezberdinak dira bakoitzaren kasuan. Hala, Adi Holden aukeratzeko, epaimahaiak talde bergararraren "eszenaratze basati eta muturrekoa" eta "ongi egituratutako eta intentsitate handiko



Pettik bere banda ekarriko du; finalerako talde gonbidatu moduan datoz. GOIENKARIA

emanaldia" nabarmendu ditu.

The Wet Band hautatzeko, ordea, gitarra jotzailearen lana, "tresnari probetxu guztia" atereaz, eta kantariaren "ahots berezi, distiradun eta erregistro zabalekoa" azpimarratu zuen epaimahaiak.

Azkenik, Norman "potentzia handiko" taldea da, "aberatsak erritmikoki eta irmoki indartsuak", epaimahaiaren ustez. Final zabala aurreikusten da, beraz.

Saria irabazleei eta ikusleari

Petti eta banda elektrikoaren emanaldiak irauten duen bitartean aukeratuko ditu epaimahaiak Danbaka lehiaketako talde onena eta Debagoieneko talde onena. Bi sariak berberak dira: disko bat gra-

batzea, Gaztelupeko Hotsak-ek eta Danbakak elkarlanean kalera- tzeke. Bergarako Adi Holden -finaleko talde debagoiendar bakarra- lehiaketako irabazlea balitz, Debagoieneko talde onenaren saria finalera heldu ez den hurrengo talde debagoiendarrentzat litzateke. Norman edo The Wet Bandek irabaziko balu, Adi Holdenenentzat litzateke Debagoie- noko talde onenaren saria; Adi Holdenek ziurtatua du saria, beraz.

Publikoaren saria irabazten duen taldeak, bestalde, 1.300 euroko saria jasoko du Arrasateko Lazkano Musika dendan gastatze- ko. Ez ahaztu, gainera, bozkatuko duten ikusleen artean snow taula bat zozkatuko dutela.

Publikoaren Saria

Hala dago sailkapena eta gaurko finalean dute ikus-entzuleek irabazlea aukeratzeko modua.

- 1 BITTER HONEY
ARRASATE -Botoen %8,90
- 2 TURBOSHIT
BERGARA -Botoen %8,61
- 3 THE 5 TWISTERS
ARRASATE -Botoen %7,72
- 4 FOXXY BOXXI
ARRASATE -Botoen %7,72
- 5 IGOR SAN JUAN
ARETXABALETAKO
Botoen %6,26
- 6 LOS VIERNES AL RON
ANTZUOLA -Botoen %6,06
- 7 SCAM
ARETXABALETAKO
Botoen %5,47
- 8 MERY MAY
ARRASATE -Botoen %5,28
- 9 NORMAN
EIBAR -Botoen %4,79
- 10 TUESDAY EVENINGS
DURANGO -Botoen %4,79
- 11 THE WET BAND
MUTRIKU -Botoen %4,69
- 12 DAMUDOT
MALLABIA -Botoen %4,30
- 13 BRANKAN
BERRIZ-MARKINA
Botoen %3,81
- 14 THE MOTHERFUCKERS
ARRASATE -Botoen %3,71
- 15 REVELPHONE
SORALUZE -Botoen %3,71
- 16 BARUA BANDA
ESKORIATZA -Botoen %3,13
- 17 NI NEU
EIBAR -Botoen %2,73
- 18 LORD WITCH
BERGARA -Botoen %2,54
- 19 FLIPIN FOLK
EIBAR-ERMUA
Botoen %1,95
- 20 ADI HOLDEN
BERGARA -Botoen %1,36
- 21 ARMA-ARMA
ZORNOTZA -Botoen %1,36
- 22 HILBETE
DURANGO -Botoen %1,27
- 23 YMOTEK
BERGARA -Botoen %0,88
- 24 ROCK PRIVADO
OATI-DONOSTIA
Botoen %0,88



The Wet Band. JOSETXO ARANTZABAL



Norman. JOSETXO ARANTZABAL



Adi Holden. JOSETXO ARANTZABAL

www.danbaka.com

DANBAKA))))

III. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA

LAGUNTZAILEA

PREST

HEDABIDE LAGUNTZAILEA

ANTOLATZAILEA

Beherapenak, krisialdiaren aldapari aurre eginez



I. Gorriti

Urtarrilaren 7an beherapenak hasi ziren, eta martxoaren 31a arte iraungo dabe. Aurten, krisiaren mamua gainean daukie kontsumitzaile zein merkatariek. Egindako aurrikuspeneak kontsumoa apalagoa izango dela dioe; oraingoz, eskualdeko merkatariek lehenengo egunen balorazino ona egin dabe.

Hasi barri dogun urte honetan ez dago hain argi beherapenen arrakasta

Gabonak pasatu eta urtarrileko aldapagaz batera etortzen dira merkealdi edo beherapenak. Salerosketarako aukera interesgarriak emoten dituen garaia dogu hau, eta kontsumitzaile zein merkatariek ahalik eta probetxu handiena ateratzeko baliatzen dabe. Produktuen prezioen jaitsieragaz, denek irabazten irtetzeko helburua izaten dabe. Erosleak, behar edo gura dauen produktua nahiko merkeago eskuratzeko aukera izaten dau; saltzaileak, barriz, materiala agortuz denporaldia-ri amaiera emon leikio, baita erdipurdi joan bada egoerari buelta emon be.

Aurten, urtarrilaren 7an hasi ziren beherapenak, eta martxoaren amaiera aldera arte iraungo

dabe. Merkealdiak aipatzean, guztiori irudi berbera etorriko jaku gogora, segurutik: lehenengo egunetako zoramen eta kontsumo ikaragarria. Hasi barri dogun urte honetan, baina, ez dago hain argi beherapenen arrakasta; azken hilabeteetan hain ezagun egin den krisiak ba ete dauka eraginik egoera horretan?

Beherapenen zain

Egun gitxi pasatu dira merkealdien garaia abiatu zenetik, eta ez da ariketa erraza horren gaineko balorazino zehatza egitea. Hainbat informazino edo eritzi iturri kontutan hartuta (dendarriak, merkatarien elkarteak, kaleko jentea, kontsumitzaileen elkarteak...), faktore batzuen

inguruan adostasunak dagoen bitartean, beste eremu batzuetan jarrera kontrajarriak agertzen dira.

Durango eta Iurretako +Dendak merkatarien elkarteak Alberto Santosen ustez, "beherapenen hasiera ona" izan da. Santosek adierazi deuskunez, "badirudi jentea beherapenen zain egon dela". Izan be, erosle ugari ibili ei da lehen egun honeetan, "orain arte gertatu ez dena". +Dendak elkarteak kidearen arabera, krisiaren eragina aurreko hilabeteetan izan danabaria, baina ez merkealdi honeetan.

Durango Bai elkarteak paritidea da Txetxu Curiel, eta bere esanetan, itxaron zeitekeena kontuan izanik, "ez da hain txarto joan" beherapenetako lehenengo astea. Komertzioaren arabera,

emaitzak desbardinak izan dira, baina "merkatariek ahalegin handia egin dabe kontsumitzaileek erosteko aukera ona izan zeien". Gitxi gorabehera, aurreragoko urteen bidetik jarraitu dabela azpimarratu dau.

Krisiaren faktoreari jagokonez, Curielak dino, argi eta garbi dagoela eragina izan dauela. Bere ustez, baina, "merkatariek euren alea ipini dabe, bezeroek eragin hori gitxiago igartzeko".

Etorkizunari begira, hurrengo hilabeteak zalantzaz beterik ikusten ditu Durango Baiko kideak, baina baita esperantzaz be. Izan be, Curielen berbetan, "merkatariek prestatzen dabilz, bezeroei ahalik eta produktu onena salneurri onenean saltzeko". Deskontuak %30-50 bueltan ibiliko dira, baina, gai batzuetan %70era be ailegatu leitekez.

Zulua poltsikoetan

Merkatariek egiten ditueen balorazinoak eta prebisinoak hain negatiboak ez badira be, hainbat adituren eta erakundeen azterketek krisiaren eragina indartsuagoa izango dela ondo-

Merkatariek egiten ditueen balorazino eta prebisinoak ez dira hain txarrak

rioztatu dabe. Izan be, 2008ko urtarrileko beherapenekin alderatuz gero, euskal herritarrok %10-15 gitxiago gastatuko ei dogu aurten. Aurreko urteetan tresna elektrikoek salmentak gora egin badau be, badirudi aurten behar-beharrezko diren elementuak izango direla salduenak. Horregaitik, kontsumo apalago horrek merkataritza sektore jakin batzuetan ekarriko ditu galera azpimarragarrienak.

Krisiak zuloak sortu deutsez poltsikoetan batzuei, eta beldurra edo zalantza beste batzuei. Erosketak egiteko bi bider pentsatzen dau jenteak, eta hori merkatarien kalterako da. Oraingoz, beherapenetako lehen egunak itxaroten eben baina hobeto joan dira, baina oraindino bi hile dagoz aurretik. Martxoaren 31n ikusiko dogu bai kontsumitzaile bai merkataria irabazten irten diren ala ez. ■ J.A. Urkiaga/M. Onaindia

2008ko urtarrileko beherapenekin alderatuz gero, euskal herritarrok %10-15 gitxiago gastatuko ei dogu

Krisiak zuloak sortu deutsez poltsikoetan batzuei, eta beldurra beste batzuei

KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEAK

Garrantzitsua da merkealdi garai honetan salerosketarako irizpide eta neurriak gogoratzea. Merkatariei ezartzen jakezen baldintzak kontsumitzaileentzako eskubide bihurtzen dira. Hona hemen:

- Beherapenetan saltzen diren produktuek aurreko hilabeteetan salgai egon diren berberak izan behar dabe.
- Etiketak zuzen egon behar dau. Aurreko prezioa eta oraingoa azalduko dira.
- Saltokiak urte osoan zehar produktuak itzultzea onartua baldin badau, beherapenetan be horixe egin beharko dau.
- Ez onartu egoera txarrean dagoen produkturik: saldoa da hori, ez beherapeneko produktua.
- Irregulartasunik antzematen badozu eskatu erreklamazio-orria eta salatu bertan zure egokiera horren berri.
- Eskatu egizuz ticketak eta fakturak; gorde egizuz, aldaketa edo erreklamaziorik egin gura izanez gero.

“Gure sektoreak oso ondo jakin dau krisialdiari aurre egiten”



Krisialdian gagozela nabaritu arren, azken asteak ontzat jo ditu Susana Uribe larreak, Durangoko Boboli umeentzako arropa dendako kideak.

Zelan joan dira azken hilabeteak?

Azkenengo hilabetea oso ondo joan da. Batez be, Gabonetarako opariak egiteko erosi dau jenteak. Nire ustez, aurreko urteetan moduan jostailuak erosi beharrean, aurten, opari praktikoko edo beharrezkoagoak erosi ditue; eskularruak, adibidez. Abenduan ondo saldu da.

Krisialdiaren eraginik ez da igarri, beraz?

Jentea tentuz dabilela esango neuke, batez be, lan barik geratu direnak. Bestela, arazo larrik ez daukienez bardin kontsumitzen dabe, eta, salmentak mantentzen dira.

Zelan baloratzen dozuz beherapenetako lehenengo egunak?

Lehenengo astea oso ona izan da, jente asko ibili da. Nik esango neuke aurreko urteetan antzera ibili garela.

Zer aurrikuspen dozu hurrengo asteetarako?

Ezin da jakin, baina salmentak mantentzea itxaroten dogu. Hori bai, eskaintza txikitzen joango den moduan, eskaria be murrizten joango da astiro-astiro.

Kontsumitzaileagazko hartu-emonak garrantzia handia izango dau negozioaren osasunean...

Azken baten, nire eritziz, artikulu onak izanez gero eta bezeroari arreta edo tratu egokia emonda, aurrera

egiten dozu. Bezeroa gustura gertzen da, eta urtean zehar be jarraitzen dau bere erosketak egitera etortzen. Guk, esaterako, euskararen erabilerrari garrantzia handia emoten deusagu; kartelak euskaraz jartzen doguz eta bezeroekin tratua be halantxe egiten dogu. Jenteak esker-tu egiten dau.

Zer suposatzen dabe beherapenek komertzioendako?

Denporaldi baten amaiera moduan hartzen dogu, topera ibiltzen gara daukagun azken materiala saldu eta berriari lekua egiteko. Gainera, urte bakotxean planteamendu ezberdina egiten dogu; gure sektoreak oso ondo jakin dau aurten krisialdiari aurre egiten. Adibidez, gu normalean ez gara hasten %50eko beherapenekin, baina kontsumitzaileak eskatzen deuskunera moldatu behar dogu. Horretaz aparte, aurten eguraldiak be asko lagundu deusku; askotan alderantziz gertatzen da.

Merkealdia ez da balantze negatibo bati buelta emoteko modu bat?

Gure helburua sasoiari amaiera emotea den arren, egia da merkataria batzuen asmoa egoera aldatzea izaten dela. Dena dela, batzuek ez dabe zuzen jokutzen: beherapenen hasiera ofiziala urtarrilaren 7an izan arren, batzuek lehenagotik ekiten deusie prezioen jaitsierari, promozio faltsuak erabiliz.

KONKRESTA

Krisi ekonomikoa izan arren, joan al zara oraintsu hasi diren beherapenetara?



Estibaliz Salgado
22 URTE

Merkealdiak beharrezko dira, krisi ekonomikoa dela eta ez dela. Halan be, ni ez naz merkealdi garaian erosketak egitera joango, batipat, dirurik ez daukadalako. Jenteak ohitura handiagoa dauka Bilbora joateko erosketatan. Durangoko dendek horri aurre egiteko aukera zabalagoa eta merkeagoa ipini beharko leukie.



Olatz Urien
16 URTE

Aurten gainerako urteetan baino merkealdien behar handiagoa dago. Erosketa batzuk egin ditut dagoeneko, baina berriro joateko asmoa be badaukat. Egia esan, ez dot asko erosten, negurako behar dodana baino ez. Aurten kapritxozko zeozer erosteko asmoa be badaukadan arren.



Ion Urien
16 URTE

Krisi ekonomikoa lar hartzen dau kontuan jenteak; hori dela-eta, jenteak merkealdien behar handiagoa dauka aurten. Honezkerok, egin dot erosketaren bat edo beste, baina amak berriro be dendetara gerturatzeo esan deust. Nik gauza pare bat izaten ditut gustuko, eta horreek erostera joaten naz zuzenean.



Begoña Cepeda
41 URTE

Aurreko urteekin alderatuta, nire ustez igartzen gabiliz jenteari dirua gastatzea apur bat gehiago kostatzen jabilkola. Halan be, ohitura handia dago merkealdietan erosketak egiteko, eta beharbada benetan behar ez doguzen gauzak erosten doguz. Durango apur bat karua iruditu arren, bertan egiten ditut.



Bienvenida Perez
70 URTE

Krisia izan zein ez, jentea bardin-bardin doa merkealdietan erosketak egitera. Nik, dagoeneko, egin ditut erosketak. Baina, beharrezkoa baino ez dot erosi. Jentea Bilbora doa, baina nik Durangon egin ditut erosketak; gehiago oraindino, ez dakit Bilbon erosketarik egiten: herrian hobeto moldatzen naz.

ERITZIA

kolaborazioa



Julen Orbegoza

Gutunak

EITB: J'accuse

Lerro hauen bidez, gogor salatu nahi dut joan zen asteko astearte gaueko ETB1 eta ETB2ko albistegiak bizi izandako esperimentzia ahalkegarri, sinestezin eta iraingarria.

Albistegi horiek aireratu zirenerako lurbira osoko hedabide nagusiak elkarrekin lehian ari ziren ordu batzuk lehenago gertatutako izugarrikeria baten berri ematen: Israelgo armadak NBK babestutako Gazako eskola bati eraso eta 40 bat jende kalitu izana. Balentria kriminal horrek munduko erredakzio guztiak inarrosi zituen eta Europako albistegi nagusi gehienak berarekin ireki ziren.

Ordea, zer gertatu zen Kantauri itsaso ertzeko herri txiki bateko telebista kate publikoko gaueko albistegi nagusi bietan, euskarazkoan nola gaztelarazkoan? Hara, albistegi horietan norbaitek erabaki bide zuen NBKren eskola batean babes bila bildutako 40 haur, gizon eta emazte bombazo bakar batez birrinduak izatea ez zela albiste bat aski interesgarria albistegia irekitzeko eta hori baino puskaz interesgarriagoak zirela ondoko gertakari transzendentel hauek:

1. Loteriaren emaitzak Laudion eta Terrasan.
2. Elurraren gorabeherak hango eta hemengo zoko zenbaitetan.
3. Errusiak bere gas iturria moztu izana Europa sortaldeko herrialde zenbaiti.

Horiek guztiak luze bezain sakon azaldu ondoren baizik ez ziren animatu gure ETBko kazetari jatorrak ahotan hartzera Gazako sarraski espantagarria.

Onartzen dut, noski, ETBko albistegi arduradunak libre direla albisteak nahi duten hurrenkeran emateko, baina jakin dezatela egun horretan agertu zuten soraiokeria anker eta iraingarri horrekin bete-bete asmatu zutela ikusle honen bezerotza zati baterako galtzen.

Bukatzeke, jakin dezatela 40 pertsonaren heriotzaren albiste lehentasun-zerrendaren laugarren tokian paratzeko gibelak dituzten arduradun horiek, ezen sekula albistegi bat irekitzen badute kutxazain automatiko zirtzil baten erreketaren albistearekin konfirmatuta utziko dituztela euren etika profesional hetikatuz euskal ikusle askok aspalditik ditugun susmo beltzenak.

Luis Berrizbeitia (Abadiño)

Gora intifada

Palestina, Israel estatu terrorista sarraski berri bat egiten ari da. Ez da lehenengoa eta ez da azkena izango. Sionistek palestinar herriaren suntsitzean sakontze nabarmena eman dute, eta, antza denez, ez da nolana etengo erasoaldi bortitz eta zapalzaile hau.

Palestinako gudariak eta herritarrek, gure elkartasuna jaso dute. Elkartasuna, sentimendu samurra izan arren, ez da nahikoa, eta beste pausu txiki bat eman behar dugu.

Orain dela urte batzuk, Palestinako 200 erakunde baino gehiagok, Israelen aurkako boikot bati ekiteko deialdia luzatu zuten. Adibidez, Euskal Herriko erakunde eta enpresek ez lukete harremanik eduki behar Israelekin; ez arlo ekonomikoan, ez politikokoan, ez polizialean, ez kulturalean, ez kirolean. Herritarren esku gelditzen da produktu israeldarrik ez erosi eta ez kontsumitzea.

Sarraski honek bere amaiera izango du halako batean. Telebistan ez dugu bertako irudi motz eta beldurgarri gehiagorik iku-

siko. Gero, Palestinan pasatzen ari dena ahaztuko dugu. Baina argi eta garbi gera dadila Palestinan intifadak jarraituko duela, eta guk emandako pausu txiki hori mantendu behar dugula palestinarren lurralde eskubideak bete arte.

Alberto Ortiz de Barron Ortiz (Abadiño)

Urtarrilaren 17an denok Urbinara, lurra berreskuratzea!

Urtarrilaren 17an, zapatuan, eguerdiko 12:00etan, AHT Gelditu Elkarlanak manifestazinoa antolatu dau Urbinan, AHTren aurka protestatzeko.

Honezkeror urte bi baino gehiago joan dira bertan obrak hasi zituenetik. Dena ezkutuan egin eben hasikeratik, inori ezer esan barik eta autopistaren lanak aprobetxatuz. Gaur egun, Urbinako herritarrek oso baldintza txarretan bizi dira: kamioien eta makinaren etenbako joan-etorria jasan behar dabe, kolore guztietako poliziek eta zaindarien modu itogarrian kontrolatzen ditue, herria eta ingurua txikitu egin deutseez; leherketak, zaratak, zikinkeria eta abar ditue eguneroko ogi.

Eta hori guztia politikari eta enpresari batzuen artean diseinatutako proiektu txikitzailea inposatzeko. Izan be, hori baino ez dakie egiten: inposatu. Asteon bertan argi itzi deuskue Zornotzako desjabetze-aktak sinatzeko ekitaldian. Herria poliziaz josi dabe, eta protesta egiten ahalegindu garenoi betiko erantzuna emon deuskue txikitzaileen poliziek: egurra. Gero, Ibarretzek eta Gereñuk aho zabalagaz esango dabe AHTren aurkako oposizinoa zilegi dela eta bermatuta dagoela, baina Zornotzan jo egin gaitue, identifikatu egin gaitue eta gainera pertsona bat atxilotu dabe. Oposizinoa bermatuta? Bai zera!

Zoritxarrez, Urbinakoa ez da kasu bakarra. Abadiñon bertan daukagu adibide bera. Uztailean Mendiola inguruak txikitzen hasi ziren, eta gainera, itzelezko kontrol poliziala dago herrian. Durangon be hasita dagoz neurketa topografikoak egiteko lanak, eta azken asteetan marka geodesiko batzuk agertu dira Tabiran, Larrinagaxun eta beste lekuren batean.

Harrigarria da, gainera, obrak aurrera doazen bitartean proiektua be ez dagoela guztiz argi: Durangoko udal jeltzaleak berak ez ditu sinatu abenduko desjabetzeak, Udalaren lurretatik pasatzen den trazatua negoziatzen dabilzelako...

Munstroa gainean daukagu. Zeren zain zagoz kalera eta mendira urtetako protesta egitera? Gelditu daigun denon artean orain; gero, berandu denean negar egiteak ez deusku-eta ezertarako balioko. Beraz, zapatuan denok Urbinara! Durangaldetik autobusak antolatu doguz, eta betiko leketan apuntatu ahal dozue. Manifestazinoaren ondoren, Gasteizen bazkaria eta kontzertuak egongo dira MusikHerria disketxearen eskutik.

Durangoko AHT Gelditu! Elkarlana

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zerbakiagaz batera bialdu behar dira.
 Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Stalin

"Krisialdia badatorrela! Krisialdia badatorrela!..." behin eta berriro errepikatuta, azkenean krisia heldu zaigu, eta zartada itzelak ematen dihardu. Pertsonaia mitologiko okerrenaren antzera, deabru garaikidea balitz moduan, labankadak ematen dabil ezker-eskuin. Han eta hemen, edonon ageri zaigu: komunikabide guztietan, banketxeetan, familiartean, igogailuetako berbaldietan... Nik Stalinen aurpegia jarri diot dagoeneko.

Ni ere krisialdian nagoela aitortuko dizuet. Baina nire txakalaldiak ez du Stalinen aurpegiarekin zerikusi handirik. Diruz justu ibiltzeko bizitzan lehenengo aldiz poztasunerako aitzakia eman dit. Sosik ez; merkatuan ezer galtzeko beldurrik ere ez. Egin hausnarketa: azken egun hauetan zuen osasunak bereziki txarrera egin badu, daramazuen bizimoduaren inguruan gogeta egitea gomendatzen dizuet. Garai hau aparta da ekonomiak (diruak) norbanakoaren bizitzan zer posizio duen jakiteko. Badaezpada, jarri Stalinen bibotea uretan.

Gizakiaren baloreak, ordea, aspaldi ikusi nituen krisian. Baina oraingo kontua beste bat da. Kapitalismoa dago krisian; dirua eta dirua irabazteko bideak, alegia. Liberalismoaren lehenengo urteetako oparotasuna zena, geroago ongizate estatuaren sinonimo bilakatu zena, orain deskalabru hutsa dela kontatzen digute.

Telebistan honako hau esan didate: garatu gabeko herrialdeetan pairatzen dutela krisia bortitzen. Horixe bakarrik falta zitzaie! Guk sortu dugun munstroaren belarrondokoak bazter haietan ere sentitu behar izatea. Oparotasuna guretzat gorde ondoren, ongizate estatuaren printzarik txikiena ere bizitzeko aukera izan ez duten horiek sufritu beharko dute beraien ez den kaka-mokordoaren kiratsa.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa

anboto
 durangaldeko astekaria
 Anboto komunikabideak Elkarte
 2009ko urtarrilaren 16a - 8. urtea - 314 zk.

Laguntzailea: Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Lurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
 Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
 Joseba Derteano.
Administrazioa:
 Itziar Belar eta Miren Abasolo.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa:
 Aitziber Basauri, Maria Gonzalez., Itsaso Esteban, Markel Onandia
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Maketazioa:
 Ainhoa Arizmendiarieta.
Argazkilaria: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.

IZARO
ESTILISTAK

Tel.: 94 682 68 83
Iturriza kalea, 50 • 48240 Berriz

NESTOR ALDEKOA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Espezialitateak: Behi Okela, Bertoko Txahala, Bildotsa, Txarrikiak eta Odolosteak

Iturriza kalea, 10 Tel.: 94 682 43 20 • BERRIZ

Liburudenda
Amaluz
aldizkariak papera opariak

Iturriza 29, Berriz Tel.: 94 682 62 48

Juliantxu
Jatetxea

☎ 94 682 40 77 - 48240 Berriz (Bizkaia)

TABERNA - JATETXEA
TOKI-ONA

Olalegieta Plaza
48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 94 682 41 02
94 682 41 97

Harategia - Urdaitegia
JAYO

Iturriza, 21 Tel.: 94 682 44 64 BERRIZ

Iturriza kalea, 9
Tel.: 94 682 40 09
48240 BERRIZ
Bizkaia

fonda
TABERNA

SAN ANTONIO, 1
48240 BERRIZ, BIZKAIA
TEL. 94 682 62 48

pedrojuan
JATETXEA

Iturriza 15 - Berriz Tel.: 946 225 778

Pingu

- Oinetakoak
- Oragarriak
- Opariak

Antonio deunaren jaiak 2009ko urtarrila Berriz

Urtarrilak 16 barikua

19:30 'Sagardotegi ibiltaria' Olakueta plazan. Trikitilariak eta odoloste jana.
21:00 Donien Atxa altxatzea
22:00 Elektro-rock kalejira Orkestra taldeagaz

Urtarrilak 17 zapatua

12:00 Meza Antonio Deuna basilizan eta Iremiñe dantza taldea
19:00 III. San Antonio Pilota Txapelketa. Finalak.
20:00 Erromeria Haitzamar taldeagaz

Urtarrilak 18 domeka

09:30 Meza Antonio Deunaren basilizan. 12:00etan, barriro be meza
10:00 BTT Martxa. Izen-emotea doan. Irteera Olakueta plazan
12:00 Ane Monna, Oskola eta Karramarroi taldearen eskutik 'Ino, Ino, Ino bada-tor Bonbardino' lana pilotalekuan. Ateak 10 minutu lehenago zabalduko dira.
19:00 'Internet Kafe', Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberen lan barria. Doan. Kultur Etxean.

Urtarrilak 19 astelehena

16:30 Barrakak doan izango dira.

Urtarrilak 25 domeka

11:00 Eskualdeko XXVIII. Barazki eta Fruiti erakusketa
11:00 XIII. Artisautza Azoka
12:00 Okelaren jai Urtegi plazan

Urtarrilak 26 astelehena

19:00 Askaria eta herri kirolak pilotalekuan. Sarrera: 1 euro (otartekoa eta edaria doan). Harrijasotzaileak: Perurena aita-emeak eta Miren Urkiola. Trontzan: Arana anaiak eta Naiara eta Nerea Etxebarria Bizkaiko txapeldunak.
20:00 Donien atxa kenduko da
21:00 Olakuetarren afaria

Jaixetan be euskeraz!!!

Juan Ramon Azkonizaga

Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzalea:

ETXEBARRIA
Tatukoa
Papera
Opariak
Fotokopiak

Iturriza, 14 Tel./Faxo: 94 682 79 58 BERRIZ

AZKONDO
ELEKTROTRESNAK

Iturriza, 8
Tel.: 94 682 42 93
48240 BERRIZ

ORLEGI
TABERNA

Tel.: 94 682 48 28 Iturriza, 5 BERRIZ

Dia %

Zengotitabengoa, z/b
946 824 215
BERRIZ

AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 17an, 18:00etan 'KRI, KRA, KRO', ZORNOTZA ARETOAN

Belgikako Teatro de la Guinbardagaz batera ekoiztutako antzezlan jatorru Zornotzara Teatro Paraisoren eskutik. Familia giroko ikusleari zuzendutako obra. Galderek eta irudiek bat egiten dabe ikuskizun honetan, munduaren zirriborro poetikoa osatzeko. Protagonistek, Bera neskak eta Bera mutilak, irudiz eta soinuz betetako espazio bateko bizimodu magikoak eraldatzera jolasten dabe, unibertso barria sortuz.

ANTZERKIA

DURANGO

>> 'Muerte accidental de un anarquista' (Suripanta Teatro-Badajoz), urtarrilaren 17an,



20:00etan, San Agustin kulturgunean.

>> Umeendako antzerkia: 'Cyrano'



(Gorakada), urtarrilaren 18an, 18:00etan, San Agustin kulturgunean. Zazpi urtetik gorako gaztetxoei zuzenduta.

ZORNOTZA

>> Umeendako antzerkia: 'Kri, kra, kro' (Paraiso antzerki taldea), urtarrilaren 17an, 18:00etan, Zornotza Aretoan. Hiru eta sei urte bitarteko umei zuzenduta.

BERBALDIA

IURRETA

>> 'Palestina, el holocausto del siglo XXI. Konflikto politikoaren nondik norakoa' (Anis Hawari Durangon bizi den ekonomista palestinarra). Urtarrilaren 16an, 19:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

BESTEAK

DURANGO

>> Txiki Parka, Landako erakustazokan. Hainbat jostailuz hornitutako espazio egokitua 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Urtarril,

otsail eta martxo asteburuetan Udaleko Kultura Sailak eraruta.

DANTZA

DURANGO

>> Dantza tailerra: 'Dantzaldi ibiltaria' Aiko dantza taldearen eskutik. Urtarrilaren 20an, 19:30ean, Plateruenean.

DEIAK

DURANGO

>> Genero biolentziaren kontrako elkarretaraztea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarrekin deituta.

>> Bost eurogaz saritutako + Dendak elkarteak establezimenduetan banatutako Gabonetako loteriaren 68.258 zenbakiaren 19.600 partizipazioak kobratzeko, urtarrilaren 12tik aurrera dago aukera, Nafarroako Aurrezki Kutxaren sukurtsalean.

ELORRIO

>> Berbalagunen parte hartzeko izena emateko epea hasita dago. Urtarrilaren 27ra arte, Iturri kultur etxean, Uztargi tabernan eta AEK-Abizari euskaltegian.

ERAKUSKETA

BERRIZ

>> 'Basoak klima aldaketaren aurrean'. Basoko injineru teknikoek elkarrekin. Kultur Etxean.

DURANGO

>> Geroa antzerki taldeari omenaldi erakusketa. Otsailaren 7a bitartean, San Agustin kulturgunean. Eguenero, 18:00etatik 20:00etara.

>> 'La aventura con el otro. Bestearekin abentura'. Leo Simoesen



zuribeltzeko argazkiak. Otsailaren 1a arte, Arte eta Historia Museoa.

>> Erakusketa kolektiboa. Urtarrilaren 18a arte, Ezkurdi erakustaretoan.

ERMUA

>> Margoak. Udal Margo Eskolako

ikasleen lanak. Urtarrilaren 16a arte, Lobiano kulturgunean.

>> Margoak. Mugartea taldea. Urtarrilaren 19tik 31 bitartean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

>> 'Muros de la vergüenza'.



Sonia Ruedaren argazkiak. Urtarrilaren 31a bitartean, Zelaieta zentroan.

IKASTAROK

DURANGO

>> Dendaketan Merkatarientzako euskara ikastaroak. Hainbat mailako taldeak osatuko ditue, bai zerotik bai maila batez hasi gura dabenei zuzenduta. Udaleko Euskara Sailak erarututako ikastaroak dira. Izena emateko epea, barriz, zabalik dago, eta otsailaren 6a bitartean (94 603 00 16 / gukeuskaraz@durango-udala.net).

>> Ostalariendako euskara ikastaroak. Merkatarientzako azken hiru urteetan erarututako ikastaroen emaitzak ikusita, euskara ikasteko interesa daukien ostalarien beharrei erantzuteko asmoz antolatuta ditu eskolok Udaleko Euskara Sailak. Hasita dago matrikulatzeko epea, otsailaren 6a bitartean. Durangoko ostalaritza establezimenduren batean lanean diharduen edonork parte hartu leike, eta hainbat mailako taldeak osatuko ditue, bai zerotik bai maila batez hasi gura dabenei begira (94 603 0016 / gukeuskaraz@durango-udala.net).

>> Okintza eta gozogintza ikastaroa, urtarrilaren 20an hasita, Durangaldeko Mankomunitateak antolatuta eta eskualdeko adinekoei zuzenduta. Otsailaren 24a arte iraungo dau eta Lanbide Prestakuntzarako Zentroan emongo dabe. Saiok, martitzenetan 15:30etik 18:00etara. Izena emateko Mankomunitateko Adinekoei Sailerari jo leiteke (Askatasuna Etorbidea 6, Durango). Lekua mugatua izango da (94 620 05 46 / 94 620 18 60).

>> Barreterapia ikastaroa, urtarrilaren 31n hasita, Berbaro elkarteak eraruta. Sei orduko iraupena izango dau, 10:30etik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara. Arduradunak: Edurne Lasa Magisteritza eta

Pedagogia Terapeutikoko diplomatu, eta Jose Mari Larrañaga FP administratiboa. Biak dira UEUko kide eta aktoreak. Gitxienez 10 lagunekin taldea beharko da (gehienez 25) (94 620 19 18 / berbaro@berbaro.com / www.berbaro.com).

IPUINAK

IURRETA

>> Umeendako ipuin kontalaria: Miriam Mendoza, urtarrilaren 16an, Udal Liburutegian: 17:30ean, hiru urtetik lau urtera bitarteko umeendako; 18:00etan, bost urtetik gorako gaztetxoendako.

JAIK

ABADIÑO

San Antonio

>> Meza, urtarrilaren 17an, 12:00etan, 13:00etan eta 18:00etan, Urkiolako santutegian. Ogia eta nekazaritza produktuak bedeinkatuko dira meza guztietan.



>> Errepetizino eguna: meza, urtarrilaren 18an, 12:00etan, 13:00etan eta 18:00etan, Urkiolako Santutegian. Ondoren, Abadiño dantzarien saioa. Eguerdian, San Antoneko errifa be egingo dabe.

BERRIZ

San Antonio

>> Pilota txapelketako finalak, urtarrilaren 17an, 19:00etan, frontoian.

>> BTT martxa, urtarrilaren 18an, 10:00etan, Olakuetatik.

>> Umeendako antzerkia: 'Ino, Ino, Ino, badator Bonbardino', urtarrilaren 18an, 12:00etan, Kultur Etxean.

Mikel Urdangarín eta Kirren Uriberen eskutik 'Internet Kafe', 19:00etan. Urtarrilaren 19an, barrakak doan.



GARAI

San Anton Eguna

>> Meza nagusia, urtarrilaren 17an, 12:00etan, San Joan Ebanjelariaren

2008/2009 IKASTURTERAKO IKASTAROK DURANGALDEKO BEHARGINTZA

ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA (Praktikak)	400 ordu 180 ordu
ARRETA MERKATARITZA-GUNEETAN (Praktikak)	280 ordu 180 ordu
INDUSTRI DISEINUA 2D ETA 3D	114 ordu
NATURA-GUNEETAKO SOROSLEA (Praktikak)	186 ordu 102 ordu
MENDEKO PERTSONEN ZAIINTZARAKO LAGUNTZAILE ESPEZIALISTA	58 ordu

Informazio gehiago Durangaldeko Behargintzan

Durangaldeko Behargintza Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Orduetgia: astelehenerdik ostiralera 08:00etatik 15:00etara
www.amankomunazgoa.com

Proiektu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso du.

elizan. Ondoren, usadioari jarraituz **baserriko produktuekin enkantea.**



» **Bazkaria**, urtarrilaren 17an, 14:00etan, Herriko tabernan.

IURRETA

Bakixa-Sebastian Deuna

» **Donien-atxa jasoko dabe jaietako hasiera emoteko**, urtarrilaren 16an, 21:00etan, Bakixan. Jarraian, txokolatada.

» **Tiro txapelketa**, urtarrilaren 17an, 11:30ean, Bakixan. Bakailao txapelketa, 21:00etan.

» **Kalejira**, urtarrilaren 18an, 10:00etan, Bakixan. **Briska txapelketa**, 17:00etan, eta, 17:30ean, **Maiztegi hezkuntza eskolako dantza taldearen saioa**. Ondoren, **umeendako jolasak eta txokolatada**.

» **Meza santua**, urtarrilaren 20an, 11:30ean, Bakixan. **Kofradi bazkaria**, 14:00etan, eta, arratsaldean, **igel txapelketa**. Egunean zehar **trikitilariak** jardungo dabe.

JARDUNALDIA

ZORNOTZA

» **'Amore bi eta Etxano' (Mikel Polo) liburuaren aurkezpena**, urtarrilaren 20an, 19:30ean, Zelaieta zentroko auditorioan. Idazleak berak eta Etxanoko Andra Mari Berri auzo elkarteko lehendakari Irune Etxebarriak parte hartuko dabe.

LEHIAKETAK

ERMUA

» **2009ko ihauteriak iragartzeko kartel lehiaketa jarri dabe martxan**. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 5a da, Udaleko Kultura Saileko bulegoan. Sari bakarra emongo dabe: 450 euro.

IURRETA

» **Iurretako VI. Literatur Lehiaketa**. Sail bitan banatuko dabe, adinaren arabera taldeak osatuz: ipuinak eta bertso-paperak. Lanak urtarrilaren 29a bitartean aurkeztu leitez, 12:00ak arte, Herri Bibliotekan. Lan sarituak liburuxka baten argitaratuko ditue, eta umeen sailean parte-hartzaile guztiendako diploma emongo dabe. Sariak: haur eta gazteek bono batean jasoko ditue (liburuengaitik trukatzeko), eta, helduek, dirutan.

LITERATURA

IURRETA

» **Irakurleen txokoa**. Urtarrilaren 20an, 19:00etan, Herri Bibliotekan. Gaztelaraz: *Gran Cuaderno*. 21ean, euskaraz: *Camembert helburu*.

MUSIKA

BERRIZ

» **Malo + Namek Planet**, urtarrilaren 17an, 22:00etan, Hiltex gatzetxean.



DURANGO

» **Ama Say + Borrokan**, urtarrilaren 16an, 22:00etan, Plateruenean.

ERMUA

» **Blues kontzertua: Amar Sundry**. Urtarrilaren 17an, 20:00etan, Lobiano kulturagunean.



ZINE-KLUBA

DURANGO

» **Uztartuz elkartearen eskutik: 'La boda de Tuya'**, urtarrilaren 16an, 19:30ean, San Agustinen.

» **'Gomorra'**, urtarrilaren 22an, 20:30ean, Zugaza Zinemaren.

ERMUA

» **Umeendako zinema: 'Horton'**, urtarrilaren 18an, 17:00etan, Lobiano kulturagunean.

» **Euskal Herriko zuzendari barrien zikloa: 'Un poco de chocolate' (Aitzol Aramaio)**, urtarrilaren 22an, 21:30ean, Lobiano kulturagunean.

ZORNOTZA

» **'Con duende' zikloa: 'La banda nos visita' pelikula**, urtarrilaren 20an, 20:15ean, Zornotza Aretoan.



Urtarrilaren 16an, 22:00etan

AMA SAY + BORROKAN

'Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen' (1993) izan zen Ezkerre-aldeko Ama Say taldeak kaleratutako iraupen luzeko lehenengo lana. Badira 12 urtetik gora azkenengoz oholtza gainera igon zirenetik. Halan be, igazko urte amaieran hainbat kontzertu emoteko elkartu ziren, eta horretariko bat dogu gaur Durangoko Plateruenean eskainiko deuskuena. Borrokan Berako taldeak joko dau gero.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Bienvenidos al Norte
Zuzendaria: Dany Boon
barikua 16: 19:00 / 22:00
zapateria 17: 19:30 / 22:30
domeka 18: 19:30 / 22:30
astelehena 19: 19:00 / 22:00
martitzena 20: 20:00



Umeendako zinema

Winx: El secreto del reino prohibido
zapateria 17: 17:00
domeka 18: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Las horas del verano
Zuzendaria: Olivier Assayas
zapateria 17: 22:30
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:00



Umeendako zinema

Perez, gure sagutxo hori 2
domeka 18: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa
Australia
Zuzendaria: Baz Luhrmann
zapateria 17: 22:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:00



Umeendako zinema

Una amistad inolvidable
domeka 18: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 16
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
Zapateria, 17
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Navarro / De Diego / Unamunzaga / Sagastizabal / Campillo / San Roma / Balenziaga (Durango)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)*
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Domeka, 18
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
Astelehena, 19
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)
Martitzena, 20
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
Eguaztena, 21
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Eguena, 22
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena.....606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

5
11° BARIKUA ☁
Hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira. Goizaldean lainoa sortu leiteke eta izozteak izan ahal dira. Apurka-apurka eguzkiak indarra hartuko dau eta temperatura epelduko da. Haizea aldakor ibiliko da.

7
14° ZAPATUA ☀
Eguraldi egonkor eta eguzkitsuagaz hasiko dogu asteburua. Haizeak ahul joko dau norabide aldakorragaz, egunaren amaieran hegomendebalekoa izan arren. Temperatura goranzko bidean.

12
13° DOMEKA ☁

6
14° ASTELEHENA ☁

6
6° MARTITZENA ☁



Durangaldeko EGUTEGIA 09

ohiko
lekuetan
salgai

3€



HONAKO LEKUETAN AURKITUKO DUZU

Iurretan: •Mila janari-denda •Urien liburu-denda; **Garai:** •Herriko taberna; **Durango:** •Alpino taberna •Hitz liburu denda •Urrike liburu denda •Arkarazo •Pol-Pol •Ibaizabal ikastola •Kurutzia ikastola •Gozo-txori •Plateruena •Herriko taberna; **Atxondo:** •Mari okindegia •Erosle •Itziar taberna; **Elorrio:** •Tximeleta •Parra •Txintxirri ikastola •Ilargi; **Otxandio:** •Prensa-denda •Danoena taberna; **Mañaria:** •Herriko taberna; **Izurtza:** •Azkonizaga •Herriko taberna; **Mallabia:** •Okindegia; **Zaldibar:** •Imendia •Baratza •Herrikoa; **Abadiño:** •Estankoa •Zure denda •Petite •Nagusien egoitza •Txirri txirri •Larrano; **Berriz:** •Estankoa •Amalur liburu-denda •Fonda .

KIROLAK



Kepa Aginako

Postu bi, hautagai asko

Areto-futboleko Lehen Erregionala gori-gori dago. Talde asko daude puntu gutxiren barruan. Hautagai asko daude postu bigatik borrokan. Oso multzo parekatua da, eta ematen du azken unera arte denek izango dituztela igotzeko euren aukerak. Gainera, saltsa horretan bete-betean sartuta Durangaldeko hainbat talde daude.

Lehen zazpi taldeak bi partiduren barruan daude; Iturriondo, Freunde eta Iturritxu daude lehen hiru postuetan, 28, 26 eta 25 punturekin, hurrenez hurren. Jarraian aurkitzen da gure lehenengo ordezkaria: Mallabia Bastida, 24 punturekin. Joan zen astean Abadiñoren kontra galduta, bigarrenetik laugarren postura jaitsi ziren, baina hain multzo

parekatuan, behera bezain erraz egiten da gora, partidu bat irabaziz gero. Mallabitarrek oraindik ez dute partidu bat ere berdindu: zortzi irabazi eta bost galdu.

Presion Break berriztarrak bosgarren daude, 23 punturekin. Etxean sendo dabilta eta sei partidutik bost irabazi dituzte. Horrez gainera, multzoko talderik golegileena dira, 58 golekin.

Mallabia Bastida eta Presion Break mailaz igotzeko borrokan dabilta

Oilarren arteko borrokan ez dago Abadiñoko tropa baztertzetik. Abadiñoko Lagun eta Abadiñoko Gaztetxe zazpigarren eta zortzigarren daude, 22 eta 21 punturekin. Talde biek kalitateko jokalaria dituzte, eta bolada ona harrapatuz gero segituan egin dezakete gora.

Hasi Durango

Bigarren Erregionalak ez du hainbesteko emoziorik, Sumi Muguru lider garbia delako. Hala ere, Hasi Durango bigarren dago, bost puntura, eta partidu bat gutxiagorekin. Asteburuan Danxtariren kontrako derbia jokatuko dute. Gu Lagunak ere goiko postuetan dago; laugarren, hain zuzen ere, 18 punturekin. Bihar Kurutzia Brena kontrako derbia jokatuko dute.

24 Tabirako: erreakzionatzeko unea

Igoera Fasean egon nahi badu oraintxe da hordagoa botatzeko ordua. Bide Bideren kantxan garaituta posible dela erakutsi dute. Bihar Baskoniakoak datoz.

25 Jockeya eta zaldia bat direnean

Ariane Isasi iurretarrak Orioko zaldi lasterketa irabazi eban abenduan, Asabairen gainean. Bien artean sortzen dabilen erlazinoa berezia ei da: "Doma naturaletik hur gagoz".

Urtean zehar galdutakoa errekuiperatzen hasi dira

Donostian arerio zuzena menderatu eta averagea alde jarri zuen Tabirakok. Bihar ere, horixe du helburu etxean Baskoniaren aurka



Tabirakok beheragoko mailetako jokalaria sarritan erabili ditu lesioak ordezkatzeko. K. Aginako

Tabirakoko gizonak garaipen garrantzitsua lortu zuten joan zen astean Bide Bideren zelaian. Izan ere, Tolosako taldea da igoera fasean izateko eskubidea ematen duten lehen bost postuetatik azkena hartuta duena. Galdu izan balute, Tabirakori benetan zail jarriko zitzaion sailkapena. Orain garaipen biko alde ateratzen die Bide Bidek. Hori gutxi balitz, averagea ere euren aldera ekarri dute. Etxean sei puntugatik galdu zuten, eta kanpoan zazpigatik ira-

bazi dute. Asteburu borobila izan zen, beraz.

Bihar Baskonia Fundazioa indartsuaren kontra jokatuko dute. Gasteizko taldeak Tabirakok baino hiru garaipen gehiago ditu sailkapenean. Beraz, arerio zuzenaren kontra jokatuko dute berriro, eta, beste behin, garaipena oso garrantzitsua da. Izan ere, atzetik doanarentzat, norbere partiduak irabaztea bezain inportantea baita aurretik doazenen martxa haustea.

Jaurlaritzak saritu ditu

Asteon albiste pozgarriak kantxatik kanpora ere etorri dira. Tabirakoko zuzendaritzak jakinarazi duenez, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun Sailak 2008ko kirol arloko Euskadi Saria emango dio Durangoko klubari.

Baskonia ere arerio zuzena da eta zaila bezain garrantzitsua da haiei irabaztea

Jose Ramon Garai, Jaurlaritzako kirol arloko zuzendariak martitzenean egindako dei baten bidez jakin dute sarituko izango direla. "Kluba ia 2.000 lagunek osatzen dugula ezin dugu ahaztu: entrenatzaileak, jokalaria, bazkideak, babesleak eta laguntzaileak. Denok elkarrekin egindako lanari emandako saria da, dudarik gabe", adierazi dute Tabirako-ko ordezkariak. ■ J.D.

Datozen bi-hiru partiduetan argituko dira Tabirakoren aukerak Ligan

Kulturala golegile areto-futboleant

Areto-futboleant, Durangoko Kulturalako emakumeak indartsu dabilta. Bigarren daude sailkapenean, eta 12 partidutan 78 gol sartu dituzte. Durangarren ahala sufritzen azkena Goiztiri izan zen. Ligako talderik ahulenari 11 gol sartu zizkieten. Bihar, 15:30ean hasita, Iraultza jasoko dute etxean. Durangarrek partidu bakarra galdu dute liga osoan, bera etxetik kanpora.

Multzoko liderra Getxo Kantxa da. Orain arteko partidu guztiak oso erraz irabazi dituzte. Guztira, 98 gol sartu dituzte.

Anbopekok lidertzari eutsi dio, Zalduak ez

Durangaldeko talde biek lidertza defendatu zuten joan zen asteburuan. Anbotopokok 109-100 irabazi zion Centro Salmantineri, partidu erakargarri batean. Bihar, Paules Carrefour-en kontra jokatuko dute Barkaldon.

Tabirakok eta Zalduak derbia jokatuko dute bihar Zaldibarren

Okerrrik ezean, durangarrak beste garaipen batekin itzuliko dira.

Julza-Zalduak, aldiz, galdu egin zuen Marrazoak-en kontra (105-97), eta orain bigarren daude sailkapenean.

Bihar, Zalduaren eta Tabirakoren arteko derbi interesgarria jokatuko da Zaldibarren. Durangarrak ere goiko postuetan dabilta; laugarren daude Zalduarengandik hiru garaipenera. Bi taldeak multzoan saskiratzerik gehien egin dituztenak dira, Marrazoaken atzetik. ■ J.D.

Unai Zamalloa
• Saskibaloi entrenatzailea



TALDEA edo taldea?

Saskibaloian buruzko lehenengo artikulua honetan garaipenaren eta porrotaren arteko diferentzia txiki-handiari buruz idaztea bururatu jat. Denporaldi borobil eta arrakastatsu baten, edo, penaz eta zailtasunez betetako baten arteko aldeari buruz. Taldea maiuskulaz eta taldea minuskulaz idaztearen arteko diferentzia txiki-handiari buruz.

Taldea maiuskulaz, partaide bakoitzaren batura da, non bakotzak bere rolak oso baneraturata eta argi dituen. Nahiz eta askotan talentuak eta kalitate tekniko-taktikoak partidu asko irabazi, epe luzera, horrekin bakarrik maiuskulazko talde baten arrakastak ez dau irauten. *Konpromisoa, lanerako eskuzabalatasuna eta prestutasuna, kementa, adorea, umiltasuna...* derrigorrezkoak dira talentu eta kalitate eta jakinduria tekniko-taktikoarekin batera lapiko batean sartu eta, bor bor, Maiuskulazko taldea lortzeko.

Askotan, horrelako detaile bat ez kontrolatzeak maiuskulazko taldea minuskulazko bihurtzen dau, nahiz eta, barriro dinot, talentu eta kalitate tekniko-taktiko handia izan. Adibidez, lurbentia Bilbao Basket dogu hor. Igazko denporaldian dena joan zen ondo baino hobeto. Aurten, zergaitik ez? Aurrendenporaldian aurreikusten zen aurtengoa guztiz desbardina eta gogorragoa izango zela jokalaria batzuk oportunitate zelan buletatu ziren ikusita. Igaz lortutakoagaz nahikoa izango ete eben?

Adituarentxokoa

Areriorik arriskutsuena dator bihar Eleizaldera

Sailkapenari erreparatuz gero, inork ezin du zalantzan ipini Erorriok Bigarren Erregionalean orain arte erakutsi duen nagusitasuna. Baina elorriarren bolada paregabea hautsi dezakeenik bada, Abadiñorekin batera, Fruiz da.

Mungialdeko taldea sasoi gozoan dago: azken lau partiduetatik hiru irabazi ditu eta bat berdindu. Behetik gora datoz eta konfidantzarekin dagoen taldea oso arriskutsua izan ohi da.

Nolanahi ere, Erorriok berean darrai; Ezkurdiren kontrako

derbia (0-4) irabazi zuten eta, beste behin, hutsean mantendu zuten atea.

Sasoi dagoen beste talde bat Abadiño da. Bigarren daude sailkapenean. Bihar Ezkurdiren kontrako derbia jokatuko dute.

Fruizek azken lau partiduetatik hiru irabazi ditu, eta behetik gora dator



Erorriok erraz irabazi zuen Ezkurdiren kontra. K. Aginako

“Ez neban pentsatzen behorrak holako bihotzik erakutsiko ebanik”

Ariane Isasik (23 urte, lurreta) Orioko zaldi lasterketa irabazi dau oraintsu, anglo-arabe arrazako Asabai behorragaz. Biek eta Arianeren mutil-lagun Endikak adeitsu hartu gaitue Oromiñoko baserri dotorean.



Domeka honetan Getarian daukie lasterketa.

Behor ederra daukazu.

Gaztea da, lau urte egingo ditu laster. Frantzia erosi genduen apirilean. Beraz, denpora gitxi daroa gugaz.

Baina, dagoeneko irabazi dau lehenengo lasterketa.

Bai, Orion izan zen abenduan. Atzetik ibili ginen lasterketa gehienean, eta azkenengo itzulian aurea hartu genduen.

Itxaroten zenduen Asabairen errendimendua?

Nik neuk ez. Ez neban esango holako bihotza erakutsiko ebanik; eskatu eta topea emongo ebanik bape kexatu barik.

Orain lasterketak beste modu batera ikusiko dozuez. Badakizue zaldiak emon leikela.

Egia da, ikuspegia aldatu egin jaku. Hurrengo lasterketa domekan daukagu Getarian. Joan zen asteburuan Donostian be izan zen lasterketa bat, baina ez euskuen joaten itzi. Hile bi arinago deitu arren, parte-hartzaileen zerrenda osatuta zegoela esan eusten. Gero jakin genduen gu baino beranduago deitutako gipuzkoar batzuk onartu zitueela. Beste irregularitateren bat be deskubritu genduen. Guk parte hartzerik ez ebela gura susmatzen dogu.

Zergaitik izan leiteke hori?

Zaldien munduan inbidia handiak dagoz. 23 urteko gazte bi hara joan, lehenengo biderrez parte hartu, eta esperientzia zabaleko jenteari irabaztea... ez jaken asko gustatuko. Aurretik, Gernikako lasterketan tirabira txiki bat be izan genduen eurekin, eta kontua ordutik dator. Maila horre-

tan lasterketek disfrutatzeko beharko leukie, baina batzuek mundua akabatu behar balitz lez korritzen dabe. Urguiluak gaina hartzen deutse.

Zuek afizino legez hartzen dozue, baina dadikazino handia eskatzen dauen afizinoa emoten dau.

Egia da. Ez dago oporrik. Zaldiak egunero gobernatu eta trebatu behar dira. Gero, asteburuetan lasterketetan kontzentratu beharra dago. Pozik eta ilusinoz egiten dogu.

Zaldiak eta jockeyak halako hartu-emon berezi bat izan behar dabela emoten dau.

Gutziz ados. Behor honegaz hartzen nabilen konfidantza doma naturaletik (zaldi-zela eta brida barik muntatzea) oso hur dago. Asabaigaz finkatzen nabilen erlazioa berezia da.

Zaldiak betidanik gustatu izan jatzuz?

Betidanik. Hamar urtegeaz eduki neban lehenengoa. Gabonetan, urtebetetzeetan... gurasoei beti eskatzen neutsen erregalu bera: “Ez dot beste ezer gura; gorde dirua zaldia erosteko beste batu arte”, esaten neutsen.

Zenbat zaldi daukazuez?

Bederatzi. Batzuk hazitarako eta umatzeko dira. Etorkizunerako trebatzen gabilzen urte eta erdiko zaldi bi be badaukaguz: anglo-arabe eta ‘cuarto de milla’ arrazakoak. Mundu honetan dirua egitea gatxa da; parean geratzen saiatzen gara. Zaldien mundua asko gustatzen jaku, eta esaera zaharrak dinon lege, gustuko tokian aldaparik ez. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Gernika

Zapatuan, 17:00etan,

Tabiran

LEHEN ERREGIONALA

(gizonak)

Iurretako - Basauri

Zapatuan, 17:00etan,

Larako-Zelain

BIGARREN ERREGIONALA

(gizonak)

Berriz B - Gernika

Sporting

Domekan, 11:30ean,

Berizburun

Abadiño - Ezkurdi

Zapatuan, 15:45ean,

Astolan

Elorrio - Fruiz

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

Extremeño - Lezama

Domekan, 17:30ean,

Tabiran

LEHEN ERREGIONALA

(emakumeak)

Iurretako - Berrio

Otxoa

Domekan, 11:30ean,

Larakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

(emakumeak)

Elorrio - Berrio Otxoa

Domekan, 11:00etan,

Eleizalden

ARETO-FUTBOLA

LEHEN NAZIONAL B MAILA

Sasikoa - Euskalduna

Domekan, 12:00etan,

landako kiroldegian

PREFERENTE MAILA

Kurutzlaga -

Unta Ibarreko

Zapatuan, 18:30ean,

Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

Mallabia Bastida -

Egartsuak

Domekan, 17:00etan,

Zaldibarko kiroldegian

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA (gizonak)

Tabirako -

Baskonia Fund

Zapatuan, 17:00etan,

Landako kiroldegian

Abadiñok puntu sorta batzeko aukera du bihar

Abadiño Xake Taldeak 1,5 puntu batu zituen lehen jardunaldian Easoren etxean. Lau partidutik bana irabazi eta berdindu zuen. Bihar, 16:00etan, Zarautzen kontra jokatu dute Matienan. Gipuzkoarrak igo berriak dira. Beraz, Abadiño faborito argia da eta lehenengo lau postuetan sartzeko adina puntu batzen saiatuko dira. Izan ere, maila horretan 10 taldetik lau igo eta beste lau jaitsiko dira.

Partiduak badu berezitasun bat. Ieray Galtzagorri abadiñarra

Donostian bizi zenean gazte biren entrenatzailea izan zen. Bi gazte horiek Zarautzeko taldean dihardute orain. Beraz, maisua ikasle-en aurka ariko da.

Bizkaiko Txapelketa

Bizkaiko Goren Mailak ere ekin dio txapelketari. Durangoko Larrasoloetak bina berdindu zuen Erandioren aurka. Elorrioko Zaldi Baltza, berriz, ezinean aritu zen Zornotzan, eta puntu bakarra batu ahal izan zuen. Bi taldeek mailari eustea dute helburu.

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak

1- Amurrio.....42	15- Leioa.....22
2- Portugalete.....41	16- Alaves B.....21
3- Lagun Onak.....41	17- Zarautz.....18
4- Elgoibar.....37	18- Eibar B.....18
5- Zamudio.....33	19- Ordizia.....14
6- Gernika.....32	20- San Ignacio.....13
7- Beasain.....29	
8- Laudio.....25	
9- Zalla.....25	
10- Kulturala.....24	
11- Baskonia.....24	
12- Santurtzi.....24	
13- Arenas Getxo.....23	
14- Amorebieta.....22	

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak

1- Logroño9 (+149)
2- Vitoria.....9 (+187)
3- Ardoi.....8 (+76)
4- Baskonia Fund.....8 (+103)
5- Bide Bide.....7 (+8)
6- Arabako EHU.....6 (-10)
7- Tabirako.....5 (-23)
8- Goierri-Verkol.....2 (-263)
9- Pamplona UPNA.....2 (-112)
10- Getxo.....2 (-115)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak

1- Bera Bera.....13 (+280)
2- Gernika.....11 (+187)
3- Abaroa.....11 (+157)
4- Ardoi.....11 (+109)
5- Getxo.....10 (+83)
6- Obenasa.....9 (+47)
7- Tabirako.....8 (+75)
8- Atletico SN.....8 (+10)
9- Arabako EHU.....6 (-8)
10- Artieda.....5 (-72)
11- Las Gaunas.....5 (-129)
12- Uni. Navarra.....4 (-42)
13- Irlandesas.....4 (-143)
14- Loidia.....3 (-130)
15- Easo.....2 (-207)
16- Astigarraga.....2 (-217)



Durangoko Kulturalak 28 gol sartu eta 27 jaso ditu orain arte

Andra Mari 18, 48200 Durango

- KIROL MASAJEA
- OINETAKO ERREFLEXOTERAPIA
- MASAJE SAKONA

MINKENDU

Alberto Murua
Tel. 662 270 770

- AKUPUNTURA
- MINAREN AURKAKO TERAPIAK

EGIA AROZTEGIA
EBANISTERIA

ZUZENEKO SALMENTA

• Sukaldeak - Ateak - Armairuak neurritan - Oholtzak

Tel. eta Faxo: 681 77 46
Ereko: 620 25 65 - Mugikorra: 989 70 37 54

Tabira kalea, 54
48200 DURANGO

Nemen agertu gura badozu

deitu!

94 621 79 02

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak

M^a JESUS LUQUE

• ileapaindegi unisexa •



Kurutziaga
9 behea
94 681 43 89
48200 Durango

Pilar Ruiz

• ileapaindegia •



SABECO Zentro komertziala • Tel.: 94 681 03 96

NUKLEO

ileapaindegia



myspace.com/pelukerlanukleo

Nizela Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 688 29 96

Adatz

• ileapaindegia •



- Irudi aldaketa
- Ilerako tratamenduak
- Fotodepilazioa

Zublaurre, 4 behea • IURRETA • Tel.: 94 620 06 28



- Ana Hurtado
- Depilazio laserrean teknikaria
- Grupo BtaB-koa

Depilazio argiak

Zer alde dago laser-depilazioaren eta fotodepilazioaren artean?

Ez dago ezelako alderik. Fotodepilazioan argi mota ezberdinak erabiltzen dira: argi pulsatua eta laser argia, azken horren barnean Alejandrita, Diodo eta Neodimio-Yag izeneko argiak dagozalarik.

Zer kasutan erabiltzen dozu argi mota bakoitza?

Neomidio Yag argia zaharkituta dago, bilo oso iluna kentzeko bakoitza erabiltzen dogu. Alejandrita argia, oso argiak diren azalak eta beilua tratatzeko erabiltzen dogu. Diodo Argia eta Argi Pulsatua gehien erabiltzen direnak dira, bilo mota guztiakin erabili leitekeez-eta. Gainera, Diodo argiak udan tratamenduarekin jarraitzeko aukera emoten dau.

Egia da ez dauela bape minik emoten?

Ez. Gure gorputzak berez daukan zeozer suntsitzen gabiltz, eta horrek pertsonaren sentsibilitatearen araberako mina emoten dau.

Fotodepilazio medikoa eta estetikoa ezberdinak dira?

Prezioan ez bada, legalki, ez dago inongo alderik. Kasu bietan erabiltzen diren materiala eta metodoak berdinak dira.

Zerbitzu hau kontratatu gura dauenak zergaitik joan behar-ko leuke Grupo BtaB-ra?

Elkarte honen profesionaltasunagaitik, emaitzarik onenak lortzeko beharrezkoa den material guztia daukagulako eta gure zentruetan bezeroek erabakitzen dabelako noiz etorri.

Estetika Zentruak

Virginia Ansorena

• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekalena diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan



San Agustinalde, 1^aA-1^aC. 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 663 716 017

Ana Camarero

• apaindegia •



LASER
FOTODEPILAZIO
MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1. esk. • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

FOTODEPILAZIOA

- Laser diodoa (azal beltzorano)
- Alejandrita (ile argia)
- Neodimio Yag
- Argi pulsatua



Zure
azalaren
leuntasuna
gozatu

DURANGO • Erredera kalea, 1 • Tel.: 94 621 39 29
GERNIKA • BARAKALDO www.fotodepilaser.com

Cristina Agirre

• apaindegia •



- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA (beroa eta epela)
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA
- MAKILAJEA
- MANIKURA • PEDIKURA
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER)

Fray Juan de Zumarraga, 9 - 1^aB • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia la zerbitzari bez. umeekin...

ERRENTAN EMAN

Durango. Alde zaharreko etxe bat alokagai. Guztiz barriztatuta dago eta hiru gela d 750 euro...

SALDU

Fun roller autokarabana salgai. 2003 urtekoa. 54 km. Motorra Fiat 2.8 JTD 127 zaldi. 24. euro...

HARTU

Neska euskalduna behar dogu 10 urteko neska bati klase partikularrak emateko (ingeles beste irakasg batzuk)...

BEREZIAK

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30 aurrera...

OPARI

Artzai-txakurrak. Hilabete bateko kuma oparitzen dut. Arra da. Oso polita. ...

ANB (tartea) + iragarkia 7789 (1,2€ + BEZ)
Tel.: 94 621 79 02

IRAGARKIAK

OHARRA

Eroski Movilek ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

Berbaro elkarteak

Gaszte arlorako laguntzailea behar du. Lanaldi erdiko kontratua, berehala hasteko. Tel.: 94 620 19 18 berbaro@berbaro.com

LANA

ESKAERAK

Denda eta enpresen kontabilitate eta fiskalitatea eramateko prest nago. Ekonomikoa. Tel.: 635 715 928

Neska gaztea portala garbitzeko prest dago. Tel.: 666 691 003

Pertsona bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Tel.: 618 896 591

Iurreta. Jatetxe batean asteburuetan lan egiteko lagun bat behar da. Tel.: 94 681 78 47

Durango. Ibaizabal ikastolako kafetegirako tabernaria behar da, asteburuetan lan egiteko. Orduetgia: 9:00etatik 16:00etara edota 16:00etatik 24:00etara. Tel.: 94 621 60 21 errota@ikasibai.com (erref. Tabernaria)

Elorrio. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko: garbiketak eta plantxa. Tel.: 665 701 825 (Patxi)

Durangaldea. Durangaldeko Geu Be elkarteak gizonetako begiraleak behar ditu arratsaldean lan egiteko. Interesatuak bidali curriculum: afngeube@yahoo.es. Tel.: 94 621 72 68

Zornotza. Mekanikoa behar da. Ezinbestekoa da Erdi mailako edo Goi mailako zikloa eginda izatea. Informatikako ezagutza baloratuko da. Erreferentzia: 53. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Aseguru merkataria behar da. Ordezkaritza eta bezeroen bilaketa. Derrigorra da diploma izatea, esperientzia izatea eta inguruan bizitzea. Erreferentzia: 74. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Modelatzailea behar da 3Dn egingo den animazio luzemetari baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 78. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Blend Shapes teknikoak behar da 3Dko luzemetari baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 79. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

LANA

-Eskakerak
-Eskaintzak
ETXEBIZITZAK
-Salgai
-Errentan eman
-Errentan hartu
-Pisua konpartitu
IRAKASKUNTZA
-Klaseak hartu
-Klaseak eman
MOTORRA
-Salgai
-Erosi
LOKALAK
-Errentan eman
-Errentan hartu
ANIMALIAK
-Salgai
-Erosi
BESTEAK
-Berba egin
-Salgai

Eguazten arratsaldeko 18:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko ditugu. Mezuak jaso eta hurrengo alean publikatuko dira.

Zure iragarkia argitaratzeko: Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ

IRAGARKI PARTIKULARRAK Ordaindutako moduloak fondo beltzagaz eta letra zuriz argitaratuko dira.

IRAGARKI PROFESIONALAK Modulo bat, astero: 7 euro (BEZ barne)

Edozein motako iragarkiak kontratatzeke honako telefonora deitu: 94 621 79 02

Durango Plateruena Kafe Antzokiak

jatetxean lan egiteko zerbitzariak behar ditu. Giro euskaldunean lan egin gura baduzu, jarri gurekin harremanetan. Harremanetan jartzeko (Maria):
Tel.: 94 603 03 00
94 681 42 78
antolaketa@plateruena.org

Durango. Set Up teknikoak behar da 3Dko luzemetari baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 81. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Testurizatzaila behar da 3Dko luzemetari baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 87. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Alemanierako irakaslea behar da kontserbatorio baterako. Astean ordu bat. Erreferentzia: 90. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Ileapaindegirako laguntzailea behar da. Derrigorra da titulazioa izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 121. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresetan hainbat helburutako aleman eta ingeles klaseak emateko irakaslea behar da. Derrigorra da ingeles eta alemaniera menperatzea, hezkuntza ezagutzak izatea, informatika eta interneta menperatzea, gida-baimena izatea eta esperientzia. Erreferentzia: 14.788. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Berriz. Jatetxe bateko jantokian lan egiteko pertsona bat behar da. Astearteak jai. Derrigorra da Durangaldean bizitzea, kotxea eta karneta izatea, eta esperientzia izatea. Erreferentzia: 14.786. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ANTZERKIA gustoko baduzu anima zaitez Elorrioko 'Arrapaladan' taldean parte hartzera arrapaladan@hotmail.com
635 74 49 71

Zornotza. Aseguru teknikaria behar da. 25 eta 45 urte bitarteko pertsona bilatzen da. Esperientzia baloratuko da. Erreferentzia: 11.707. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Iurreta. elektrikaria behar da tentsio baxuko instalazio elektrikoetarako. Egun oso lan-aldi zatitua. Derrigorra da gutxienez 36 hilabeteko esperientzia izatea, gida-baimena izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 13.842. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Aseguru-merkataria behar da. Derrigorra da orduetgi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 14.113. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Zerbitzaria behar da barran eta mahaia zerbitzatzen aritzeko. Derrigorra da Durangaldean bizitzea eta esperientzia izatea. Lan-egun osoa, astean bi egun libratuz. Erreferentzia: 14.461 SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAITZAK

Lan Harremanetan diplomadun neska durangarra administrari, kometzial, harreragile... moduan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 677 153 135

Garbiketan edo/eta ume zein adinekoak zaintzeko prest nago. Egun erdiz edo osoan. Tel.: 680 302 861

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperientzia lantegietan, zerbitzari bezala, umeekin... Tel.: 647 008 625

Teknikari laguntzaile klinikoa adineko pertsonak zaintzeko edo lagun egiteko prest dago. Tel.: 636 025 493

Durangar bat dendari moduan lan egiteko edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Tel.: 637 513 429

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Tel.: 650 102 636

Neska euskalduna dendetan garbiketan edo jatetxeetan (zerbitzari moduan) lan egiteko. Edozein ordutegitan eta berehala lanean hasteko prest. Tel.: 663 657 288. Izaskun.

Enpresa Zientzietan diplomatua dagoen neska umeak zaindu eta klase partikularrak emateko prest. Pertsona nagusien laguntzaile izateko be gertu. Tel.: 666 691 003

Teknikari laguntzaile klinikoa adineko pertsonak zaintzeko edo lagun egiteko prest dago. Tel.: 690 286 071

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Otxandio. Etxebizitzak salgai. Salmenta zuzena, konstruktorearekin. Prezio eta etxe interesgarriak. Tel.: 676 018 586

Elorrio. Etxebizitza salgai. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta trastelekua. Guztiz berriztuta, oso eguzkitsua eta polita. Tel.: 617 787 165

AUKERA

Durangon bideokluba traspasatzen dut. Gozokiak saltzeko gunea dauka eta vendingeko makina bat kanpoan. **27.000 euro** (lehen 42.000). Zonalde interesgarria.

Tel.: 658 724 574

Berriz. Etxea salgai. egongela, bi logela, sukaldea eta komuna. Berriztuta, berogailuz eta altzariz hornitua. Tel.: 667 064 942. Olatz.

Durango. Pisua salgai Artekalen. 6 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela. Etxebizitza 2 egiteko aukera. Tel.: 657 791 028

Abadiño. Pisua salgai. 4 logela, sukaldea, bainugela eta egongela; garaje itxia, txokoa eta terrazarekin. Tel.: 94 681 70 67

INMOBILIARIARIK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 22
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak eraikitzen.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Abxondo: Adosatua lursailarekin.
- Abxondo: Baseria salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txalet bifamiliarra eraikitzen.
- Obxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, balkoia eta ganbara. Egoera oso onean. Igogailua. Eguzkitsua.
- Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara (berria eta egoera oso onean)
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara. (berria hobekuntzekin).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea trastelekuarekin eta ganbara. (eguzkitsua eta ikuspegiekin).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara. (berria, erdi jantzia).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea trastelekuarekin eta 2 ganbara. (hobekuntzekin).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plazan: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 3 komun, garajea eta trastelekua.
- Plateruen Plaza(ERMODORANTZ): Halla, egongela-jangela, sukalde-jantokia, 2 logela eta 2 komun.
- San Agustinalden: Apartamentu berriak salmentan.
- San Fauston: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna. Etxe jantzia.
- San Fauston: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.

DENPORAPASAK

HITZ GEZIDUNAK >

	Bilgor, gantz	Erraldoi	Txingor
	Toka, luke	Pozik	
	Leku honetara	Modu harroan	
Harrokeria	Hegazi mota	A batez, herri-jokoa	
Iltzeko tresna	Pila	Meza-mutil	
*Bizkaiko mendia			
Lehen			
			Boroa
			..., eta ez gauaz
Lehortea			
Masa gotor			
		.Gramoa	
		Ospea	
Bokala	.Ez du ikusten		Ukitu aditzaren oina
Gaixo	Ipar EH-n, inguru		
		.Hotsaren garaiera	
		Tantaloa	
Atereak			
Saiatzera behartu			

SUDOKU >

1

9		7	3		6
	8	7		2	
1	5				9
		6		8	2
	8			1	
2	6		8		
6					3 1
		4		9	7
4		2	1		8

2

	2	1		6	5
	5		8	9	
4					7
1	7			6	2
			7	5	
2					
	4			8	
3		5			1 4
	9	3			2

HOROSKOPOA >



Aries

martxoak 21 - apirilak 20

Jaten dogunak egiten gaitu. Izan zaitez arduratsuagoa; itzi alde batera gozoki eta karameluak!



Taurus

apirilak 21 - maiatzak 20

Inoiz ez da jakiten nor izango den zure bihotzean sartzen hurrengoa. Adi! Agian zeure bizitzako amodio istorioa alboan izango dozu-eta.



Gemini

maiatzak 21 - ekainak 20

Etiket lanera eta lanetik etxera, horixe da zure bizimodua. Kalean eta lagunartean denpora gehiago emoten saiatu zaitez.



Cancer

ekainak 21 - uztailak 20

Sekula ez deusazu esana egiten zure gurasoei. Gerora, arrazoia daukiela konturatzen zara. Bada ordua aldatzen hasteko...



Leo

uztailak 21 - abuztuak 23

Merkealdietan beharrezko dozuna bakarrik erosi. Zure gogo hori kontrolatzen ikasi beharko zenuke; hasi zaitez aste honetan.



Virgo

abuztuak 24 - irailak 23

Zalantza handiak daukazuz, ez dozu etorkizuna argi ikusten. Horren aurrean, hoba oraina bizitzen badozu.



Libra

irailak 24 - urriak 23

Maitasuna eta adiskidetasunaren artean bereizteko arazoak? Hartu egizu denpora bat hausnartzeko, inori minik egin baino lehenago.



Scorpius

urriak 24 - azaroak 23

Urte barriak gertaera barriak ekarriko deusuz, eta horretako asko onerako izango dira. Ez zaitez beldurtu.



Sagittarius

azaroak 24 - abenduak 23

Athleticek hobera egin dauela eta ilusinoa berreskuratu dozu. Badaezpada, ez fidatu larregi. Egizu kiniela aste honetan. Zorte on!



Capricornus

abenduak 24 - urtarrilak 20

Garrantzirik bako haserraldi batek bion arteko hartu-emonak kolokan jarri behar ete dau? Ahalik eta arinen berba egitea komeni jatzue.



Aquarius

urtarrilak 21 - otsailak 18

Loak hartzen zaitu itxaroten ez dozun une askotan. Gaez lasaiago egotea beharrezko dozu, atsedean egokia izateko.



Piscis

otsailak 19 - martxoak 20

Bi pertsonen arteko igurtzia da hotzari aurre egiteko sistema onena. Baina kontuz, su hartu barrik!

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Santa Ana 6, 48200 durango



Luken Basabe Etxebarriak urte bi egin ditu gaur. Mutiko polit honi mosu handi bat etxekoan eta lehengusinarekin partez.



Jokin Martinezek astelehenean 4 urte egingo ditu. "Hemen bai aker usaina, e, Jokin?". Zorionak, izeko eta lehengusuen partez.



Neska polit honek bihar, urtarrilaren 17an, 10 urte egingo ditu. Zorionak **Aitziber** zure familiaren eta Garaiko lagunaren partez.

SOLUZIOAK

I	Z	V	R	V	I	V	S
K	A	N	E	L	R	I	•
U	N	O	L	•	R	I	E
•	U	S	L	I	•	E	•
R	G	•	E	K	O	B	L
V	A	E	T	R	O	D	I
B	•	N	E	R	R	U	V
V	A	I	E	B	O	R	•
K	O	L	•	V	A	R	M
Z	L	N	O	H	•	U	•
V	N	O	H	•			
K	•	Z	•	Z	•		



Miren Otxotorenak 11 urte egingo ditu astelehenean, urtarrilaren 19an. Zorionak, maite zaitugun guztion partez, eta segi orain arte bezain zintzo. Otxo eta ama.



Garazi Areitio Sopelanak joan den urtarrilaren 12an bost urte egin zituen. Zorionak eta mosu handi bat, lurretako laguntxoaren partez.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

1

9	4	2	7	1	3	5	8	6
5	1	4	6	7	9	6	8	2
1	5	3	8	4	6	2	9	7
3	2	8	7	9	6	8	2	3
5	1	4	6	7	9	6	8	2
7	9	8	3	2	4	1	6	5
3	2	8	7	9	6	8	2	3
4	7	9	2	3	1	6	5	8

2

7	9	2	1	3	4	5	8	6
5	8	9	6	7	1	3	4	5
3	6	7	5	2	8	9	1	4
2	1	4	7	6	9	3	5	8
8	2	6	3	7	4	5	9	1
9	4	3	2	1	5	8	7	6
1	7	5	8	6	2	4	3	9
4	3	8	6	5	7	1	2	9
5	1	4	6	7	9	6	8	2

OSASUN GIDA

PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA




FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiroprodia; Onikopatia; Alterazio
Dermatologikoak; Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADDY (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



OREKA LASAI-GUNEA

- YOGA
- YOGA (UMEAK)
- KIROL-MASAJEA
- PILATES
- TAILANDIAR MASAJEA
- MASAJE KURTSOAK

Anduetxeta, 6 - behea
48230 ELORRIO

tf. 94 658 47 96

ESTETIKA



ESTETIKA TRATAMENDUAK

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa, barizek...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
Portaera, depresio, loezin, antsietate,
bikote, eskola-atzerapen, anorexia,
bulimia. Jokabide terapien masterduna.
www.psicologo.biz

Frantzisko Ibarra 6
48200 DURANGO

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728



Julen Altube
Artezlea

"Rockero zaharra naz, Dire Straits eta Rolling Stonesen garaikoa"

Matienako Ostendi tabernan bitzako urteak gogora dakar Migel Angel Oregi "Kali" abadiñarrak

Tabernako animalia da Migel Angel Oregi "Kali" abadiñarra. Kasik bizi osoa daroa lanean Ostendi tabernan, jaio be bertan egin zela esan deusku. Bazkaria, kafea edo tragoa zerbitzatzeko prest, ez dau inoiz umore ona galtzen. Urte honeetako guztietako hainbat istorio kontatu deuskuz, barraren barrukaldetik.

Urte asko daroazu tabernan lanean. Ez zara nekatzen...

Urte piloia dira, bai; bizitza osoa dela esango neuke. Hemen jaio nintzen eta hemen-txe nago orain be. Bigarren etxea baino gehiago da niretzat. Lobakarririk egiten dot kanpoan.

Urte batzuk kanpoan emon zenduzen.

Bai, Ameriketara pilotan jokatzeko egon nintzen, 25 urtera

arte. Handik bueltatu eta geroztik tabernan nago lanean.

Gogorra da tabernariaren lana, ala?

Oso gogorra da. Gainera, urte askoan nabil eta nekatu be egiten dau. Dena dela, ni "tabernero de pura cepa" naz; asko gustetan jat hemen aritzea. Gainera, bere alde onak be baditu; lagunak egitea, adibidez.

Lagun ugari egingo zenuen barraren alde honetatik...

Bai, batzuen izenak gogoratu be ez ditut egiten. Jente asko ezagutu dot.

Tabernaria bezeroaren konfidentea ei da.

Bai, hori be bada geure lana. Anek-dota moduan esango deusut, jaie-tan sarritan zaindu behar izan doguzela batzuk gure sukaldean (barrez).

Antzeko anekdota gehiago izango dozu kontatzeko, ezta?

Behin, Durangoko lagun baten despedidatik hona etorri zen koa-drila handi bat. Denak mozkortuta zegoen, eta neuk eroan behar izan nituen txandaka etxera. Azkeneko bueltan kotxea irauli egin gura eusten.

Garaiak asko aldatzen dira. Tabernan be igarriko zenuen hori...

Gogoratzen dot, zelan orain dela urte dezente baserri bat bazkaltzen etorri zen San Blasetan; BEZa sortu zeneko sasoa zen. Baserri-tar harek ez eban BEZa ordaindu gura, berak ez ebalako halakorik jan (barrez).

Entzun dogunez, asteburuetan lehenagoko musika jartzen dozu...

Bai, 70eko eta 80ko hamarkadetako musika ipintzen dot. Izan be, ni rockero

zaharra naz, Dire Straits eta Rolling Stonesen sasoiak. Lehengo musika mantentzen dot.

Jente asko ibiltzen da asteburuetan?

Hemengo eta inguruetako jentea etortzen da hona dantza eta parrandara; denetarikoa, gainera. 20 urteko gazteak eta helduak aurkitu zeinkez; batek ileak puntan edukiko ditu eta beste batek txapela buruan. Dena dela, aitatu behar dot ambientea apur bat jaitsi egin dela, errepide kontrolen ondorioz.

Egunez be izango dozue lanik, ezta?

Bai, eguerdian bazkaltzen emoten dogu, eta topera ibiltzen gara orduan be.

Nondik dator "Kali" ezizena?

Nire aitari "Kalifornia" deitzen eutsien, eta "Kali" laburdura bat da. Aita izan zen lehenengoa, eta orain familiako denak gara ezizen berekoak.

Migel Angel Oregi "Kali"

Matienarra da, 53 urte ditu.

Ostendi tabernakoa da.

Guztiak ez dira berdinak

Esaldi potoloak, borobil-borobilak, egia ordezkatu gura izaten dabenak, behin eta berriro errepikatzearen indarrak harlauzklurrera modu angure eguneroko jardunean itsatsita geratzen direnak... sarritan egiaren distortsioa ere izaten dira. Bizi doguzen edo bizi gaituen egoera jakinei zelan baiteko azalpen erraza emoteko erabiltzen doguz eta... beti ez dira zuzen-zuzenak izaten.

Hauteskunde sasoi da, bai behintzat bazter honetan, eta nago sarri samar entzun behar izango dodala "politikariguztiak dira berdinak" laburbiltzen dauen esaldi eroso eta erabilia. Min emoten deust niri horrek. Ez ditut nik gauzak horrela ikusten; edo sentitzen, gurago badozue. Baina sentimenduetatik harago badakusat nik nahikoa egiaz-tapen guztiak berdin-berdinak ez direla esan ahal izateko.

Hasteko, milaka sinadura batu beharko ditue batzuek aurkezteko ahalegina egin ahal izateko, eta, sinadurok batuta be, gero demokrata nagusiek erabakiko dabe batzuk horrek homologatu ala ez. Bitartean, homolgazino beharrik ez daukien hor ibiliko dira aurrekanpainan sartuta; Juan-jok edo Patxik, Abiadura Handiko Trena bietatik zeinek inauguratuko dauen antzeztan. Txiringitoaren ajeak.

Ez direlako guztiak berdinak, horrexegaitik ezingo dabe errepikatu Nekane Erauskinnek, Itziar Basterrikak eta beste zazpiek, baina euren lana hortxe geratuko da, eta guk badakigu.

Hau da despedidea, anbototarrok! Plazerra izan da. Aurrerantzean be zaindu maila dozun hori!



Orue eskola

Hezkuntzako profesionalen zuzendutako ikastaroak

ORUE ESKOLA
San Migel de Oresen auzoa, 16
48360 Armentia (Durango) (Bizkaia)
Tel: 946 305 058
Fax: 946 306 199
eskola@orue.biz

Diruz lagundutako ikastaroak: Dohainik

www.orue.biz/eskola

HEZKUNTZA PROIEKTUAK:

Redefinición del proyecto curricular de centro, en clave de competencias
Fechas: 16/01/09 - 13/02/09

Ikastetxearen curriculum proiektua oinarriko kompetentzien arabera egituratzea
Data: 09/02/20 - 09/03/27

Haur Hezkuntzan kompetentzia orokorrak eta balioak programatzeko proposamena
Data: 09/03/03 - 09/03/31

Blogak eta eskola
Data: 09/02/02 - 09/03/02

Izen ematea zabalik

HAUR HEZKUNTZARAKO PROPOSAMENAK:

Importancia del movimiento y Psicomotricidad (0 - 3 años)
Fechas: 20/01/09 - 03/02/09

Lan sensoriala lehenengo urteetan
Data: 09/03/03 - 09/03/17

Umeekin lan egiteko proposamenak
Data: 09/02/10 - 09/02/24

Haur hezkuntzan gurasoekin lanean
Data: 09/01/29 - 09/02/26

Clown tailerra: haur hezkuntzako tresna hezitzailea
Data: 09/02/05, 09/02/06, 09/02/12, 09/02/13

Abestiak eta jolasak euskaraz eta ingelesez
Data: 09/02/04 - 09/03/04